

ARGIA

Non duzue?

JOSE MIGUEL ETXEBERRIA 'NAPARRA'

DESAGERRARAZI ZUTELA 40 URTE

#2.690 | 2020/06/14 | 3,90 €



**"Ulertu behar dute
futbola emakumeona
ere badela"**

12 | AINHOA TIRAPU



**Txina munduko
potentzia
nagusia aztergai**

21 | NAZIOARTEA



**'Euskal Herria
pertonentzat'
manifestua**

33 | GIZARTEA



Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ETXEBERRIA ALVAREZ FAMILIAK UTZIA.
DANI BLANCOK KOLOREZTATUA.

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | ANA MENDIA
- 19 | CASTILLO SUAREZ
- 20 | AINHOA AZURMENDI

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
- ARANTXA TIRADO SÁNCHEZ
- 54 | BERANDUEGI



21 | TXINA EREDUGARRI?

Juan Gorostidi Berrondok Txinarekin harreman estua du azken 40 urteotan. Artikuluan azaldu ditu Txinako herrialdearen ezaugarriak, pandemiari aurre egiteko izan duen modua eta pandemia ostean ekonomian izan dezakeen nagusitasuna.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Qiao Liang jeneral txinatarrak honela ikusten du AEB-en eta Mendebaldearen gainbehera

Pello Zubiria Kamino

12 | KIROLA | AINHOA TIRAPU

“Emakumezkoen futbolaren hitzarmena beste emakume batzuentzat lagungarria izango da”

Reyes Ilintxea

26 | POLITIKA | NAPARRA 40 URTE BILA

Desagerpenaren samina

Xabier Letona Biteri

30 | NAZIOARTEA | KILONBOLAK

Atzoko eta gaurko esklabotza Brasilen

Esti Redondo

33 | LURRALDE ANTOLAMENDUA

Bestelako Euskal Herria eraikitze bidean

Gorka Peñagarikano

36 | GIZARTEA | ESKOLARA ITZULERA

“Atzera ere oker jokatzeko ari gara umeeekin?”

Heike Freire / Jose Maria Paricio

38 | EUSKARA | IMANOL AZKUE

Historiari begira, euskararen betaurrekoak jantzita

Axier Lopez

44 | KULTURA | UNAI ITURRIAGA

“Tira grafikoaren bidez tiro egitean, errealitatea ezagutuz gero hobeto egingo duzu”

Jon Torner

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre,
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Maria Ortega, Mikel Asurmendi,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosola,
Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



HOBETO EGIN DAITEKE

Gipuzkoan iaz errefusa gisa 138.000 tona hondakin bildu ziren, baina horietatik 110.000 tona birzikla-garriak ziren. Alegia, herri guztietan hondakinak jasotzeko bide egokiak baleude martxan, %80a ez litzateke mendien magal edo erraustegi toxikoetara bidaliko. Eta erraustegia duen Donostia, denetan okerrrena. Galdera da, non jarri behar dira inbertsio publikoak? Azpiegitura erraldoi kutsatzaile gehiago erakitzen, ala herritarrek kontzientziatzen, formatzen eta praktikan eraginkorrak diren bilketa sistemak hedatzen? Irudian: Erraustetaren Aurkako Mugimenduen salaketa umoretsua Donostiako udaletxearen aurrean Ingurumenaren Nazioarteko Egunean.



MOTZEAN

1610. urteko 'Mithridates de differentis linguis...' liburua eskuratu du Mintzoa argitaletxeak Italian. Euskal Herriari buruzko bi orri eta euskarazko 100 hitz dauzka, latinezko itzulpenekin. Kaspar Waser teologo suitzarrak idatzi zuen eta ale berezia da, lehendik ezaguna izan arren.

Gladys Del Estal ekologista donostiarra guardia zibil batek Tuterako jaialdi baketsu batean tiroz hil zuela 41 urte bete ziren joan den astean eta omenaldi bana egin zioten Tuteran eta Donostian.

Migratzaileek salatu dute gurutze bat marraztuz markatu, umiliatu eta jo egin dituela Kroaziako poliziak. Ondoren ibaira bota zituzten, Bosniara itzularazteko.

70 urte betetzear zela, Mattin Larzabal hil da, Ipar Euskal Herriko kazetaritzan ezinbesteko erreferentzia. Gure Irratia eta Euskal Irratiak sareko kazetari izan zen.

Bixente Serrano Izko idazle eta historialari nafarra hil da 72 urterekin. Gaztetatik inplikatu zen Frankismoaren aurkako borrokan eta figura inportantea izan zen Nafarroako euskaltzaleentzat.



DANI BLANCO

Metroko obrengatik, bi eraikin desalojatu dituzte Donostian

ARGIA

Donostiako erdialdean, Zubieta kalean dago lau izarreko hotela eta honekin batera Hegalak izeneko gimnasioa eta beste eraikin bat ere desalojatu zituzten ekainaren 5ean, Sos Deiak jakinarazi zuenez "ur jario baten" ondorioz. Metro polemikoaren obrak egiten ari dira hor azpian. Hasieran Nekane Arzallus zinegotziak ukatu egin zuen metroaren obrekin zerikusirik zuenik gertatuak.

Ur jarioak luizi bat sortu zuen eraikinaren sotoan eta bizilagunek, entzundako zarataren ondoren, suhiltzaileei deitu zieten. Goizeko lehen orduetan atera zituzten bizilagunak euren etxeetatik. Arratsaldean Zubieta kalea itxi zuten eta Kontxako Pasealekuaren zati bat ere bai.

Egunean bertan, ARGIAk jakin zuen langileen bidez baietz, metroaren obretan gertatutako istripu bat izan dela. "Ireki den boketearen ondorioz, tunelean ura, hondarra eta eskonbro asko sartu da, egonkortasun falta handia da".

Aste berean metroko bi langilek borondatezko baja aurkeztu zuten. Ez dute bertan lanean jarraitu nahi. "Segurtasunagatik, ni banoa hemendik", esanez ospa egin dute.

BI EGUN LEHENAGO, UR JAUZIA OBRETAN

Ekainaren 3an, ur jauzia gertatu zen Donostiako metroaren lanetan, tunelaren zula-laketa-lanetan ari zirenean. Obretako langileen arabera, Perla zentroaren inguruan aurreikusi ez zuten akats geologiko batekin egin zuten topo eta ura belaunetik gora iritsi zitzairen. Gertakaria dela eta, baliteke tunelaren norabidea aldatu behar izatea.

LUR-JAUZIAK ERE BAI

Ez da proiektu honek izan duen lehen arazo larria. Iazko azaroan, adibidez, eraikuntza-lanak egiten ari ziren mendian lur-jauzia gertatu zen Antigua auzoan, eta horrek gas jarioa eragin zuen aldi berean. Auzotarren hitzetan, Donostiako Udalak ez zuen mendi magalaren egoera "ezegonkorra" kontuan hartu metroaren obrei ekiterako orduan.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Biblioteka bat



ARITZ GALARRAGA

Elias Canetti izan zen idazle bat, jaiotzez bulgariarra, jatorriz sefardia, alemana erabili zuena osatzeko bere obra. Familiakoek gaztelania, neskameek bulgariara, zazpi edo zortzi hizkuntza hitz egiten ziren jaioterrian, garrantzitsua zen asko ongi jakitea. Gurasoek alemanez egiten zioten elkarri, ordea, “ez nuen euren artekoa ulertzeko baimenik”. Aitarekin harreman ona zuen. Amari zuzenean zion herra, “aita hil ondoren alemana irakatsi zidan arte”, behintzat. Garai bikaina izan zen orduan hasi zena: “Alemanez egiten hasi zen ama nirekin”. Alemana, beraz, “berandu eta egiazko minekin landatutako ama-hizkuntza izan zen” Canettirentzat.

Mihia aske memoria liburuan kontatzen du hori guztia, eta amak zein mespretxurekin gaitzetsi zuen Stefan Zweigen *Jere-mias* lana: “Papera! Lasto hutsa! Nabari da berak ez duela ezer bizi izan. Hobe luke Barbusse irakurriko balu, eta ez horrelakorik idatzi!”. Literatura berebizikoa baitzen Canettitarrenean. Aitarekin dagoeneko piztu zitzaion grina, “gerora taxutu nauen ia guztia aitaren maitasunak bultzatuta zazpi urterekin irakurri nituen liburu haietan jasota zegoela jada”. Aldiz garai hartako gauzarik garrantzitsuena, kitzikagarriena eta bereziarena, alde handiz, “amarekin nituen irakurketa-arratsak eta irakurketa haiei lotutako solasak ziren”. Pentsa: “Fedea inoiz eragin ez zion suharra sentitzen zuen Shakespeare irakurtzen”.

Nik ez dut halako irakurle-historia epikorik, noski. Ezin dut esan hamar urterekin jada klasiko guztiak irakurrita neuzkanik, kapaz nintzela Homeroz hitz egiteko aitamekin. Gure etxean ez zegoen irakurzaletasun handirik. Baina ezta irakurzaletasunaren kontrako jarrerarik ere. Are bazegoen biblioteka bat, minimoa, irregularra, nahikoa zeozer pizteko nigan. Gaurko egunetik, biblioteka txiki bat –eta ama-hizkuntza pare bat, ados–, ez nieke askoz gehiago eskatuko gurasoei. Ez diet askoz gehiago utziko oinordetzan seme-alabei. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“JOSE IGNACIO ASENSIO GEZURRETAN ARI DA”

GURASOS

Gipuzkoako erraustegiaren aferra ikertzen jarraitzen duela adierazten duen oharra bidali zuen Europako Parlamentuko Eskueren Batzordeak, maiatzaren 11n. Aldiz, Asensiok maiatzaren 28an kontrakoa zabaltu zuen, batzorde horrek GuraSOSek eskatutakoa atzera bota zuela esanez. “Asensiok gezurra esaten du eta modu eskandalagarrian manipulatu du; batzuetan erabateko ezjakintasunetik abiatuta, beste batzuetan Zubietako erraustegiaren aferaren gaineko ageriko inkompetentziarekin”, dio GuraSOSek eta oraingoan Europako erakundeekiko “errespetu falta” ere egotzi dio. **2020/06/02**



EKONOMIAREN TALAIAN

60.000 pobre eta bazterturen erreskatea



JUAN MARI ARREGI

Espainiako Gobernuak Bizitzeko Guxtieneko Diru-sarrera (BGDS) onartu du eta 2,5 milioi pertsona bizi diren 850.000 etxetan jasoko dute laguntza. BGDSk Espainiako Estatu osoari eragingo dio, baita Hego Euskal Herriko lurraldeei ere, non jadanik Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Errenta Bermatua baitaude. EAEn, pertsona bakarrarentzako DSBEa 693,7 eurokoa da, eta Nafarroan 623,23koa. BGDS 462 eurokoa izango da pertsona bakar batentzat. Hego Euskal Herrian, lehendik beste errenta horiek jasotzen dituztenek -80.000 pertsona inguru- orain arte bezala kobratzen jarraituko dute. Horrela, EAEko eta Nafarroako gobernuek milioika euro aurreztuko dituzte, BGDSren errentaren eta ordaintzen ari zirenen arteko aldea bakarrik ordaindu beharko bailukete.

Lakuaren Pobrezia eta Desberdintasunei buruzko Inkestaren arabera, ordea, milaka pertsona dira DSBE edo antzeko errentaren bat jasotzen ez dutenak -EAEn 60.000 lagun-. Ondorioz, ezer baino lehen, administrazioek formulak bilatu beharko litzukete behartsuen eta sozialki baztertuak dauden multzo horrek errenta-motaren bat jaso ahal izan dezan; errenta hori BGDSk ahalbidetzen dien aurrezkiarekin finantzatu ahal izango litzateke.

Era berean, ez da ahaztu behar DSBEak handiagoa izan beharko lukeela 2008ko Legea bete izan balitz, baina gaur egunera arte %26ko murrizketak izan ditu. Murrizketa horiek orekatzeko ere erabili ditzake administrazioak BGDSaren aurrezkiak, betiere alde aurretik lortzen badu sozialki baztertuta dauden behartsu horiei errentaren bat bermatzea.

Desberdintasun sozialak maila asko ditu: generoan, nazionalitatean, enpleguan, soldatetan... eta gizarte-prestazioetan ere bai. Sistema kapitalistak sortu du eta, zuzenketa kosmetikoak eginda, mantentzea interesatzen zaio. ●

ANALISIA



BILBOKO KONPARTSAK

Jai herrikoiei berrituen uda

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Pandemiak gogor kolpatu gaitu eta ondorioz, domino fitxen antzera, herriz herri udalek jai ofizialak bertan behera utzi dituzte. Komunitate bat izango bada, ordea, ospakizun kolektiboa beharrezkoa da. Eta hor, jai herrikoien mugimenduetan badu zeresanik, are gehiago, Hego Euskal Herriko hiriburuetako herri mugimenduetan salatu ostean erakundeek ez dutela beren iritzia entzun ere egin erabakia unilateralki hartu aurretik. Egoera salagarriak sortuko dira, Donostiako Udalak, adibidez, auzoetako jaiak debekatu ditu dekretuz, baina Jazzaldia antolatuko du uztaileko, gauza bera auzoetako San Joan suekin. Pandemia baten kudeaketa erabat politikoa dela ez dezan inork ahaztu. Jaiak ospatzeko herritarren erabakia bezala.

Udalek jai ofizialak bertan behera utzita, dena den, jai herrikoien mugimenduen erreferentzialtasuna irabazteko aukera dute, beti ere, osasun neurriekin eta egitarauaren egokitasunarekin asmatuz gero. Talka egiteko prest egongo al dira? Batzuk bai: "Herri guztietako jai batzordeak animatzen ditugu jai herrikoien alde antola daitezen, osasun eta segurtasun neurri guztiekin, modu berritzailean eskaintza egin", zioten Iruñeko, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako mugimenduen.

BALOREETAN OINARRITUTAKO JAI EREDU BERRITUA, TXIKIRA JOZ

2020ko jaiak ez dira orain artekoak bezala izango. Txikiagoak izan beharko dute leku askotan, kanpotik datozenentzat baino komunitatearentzat pentsatuak, auseroak, osasun neurriak zorrotz errespetatzeko antolatutakoak. Azken honek eragin dezake gaueko egitarauaren aurrean eguneko ekimenek pisua irabaztea, parte hartzaileen adin tartea zabaltzea, egoera ez deskontrolatzeko multinazionalen negozio itzela den alkohol salmenta erdigunetik kentzea, jende pilaketak saihesteko espazio txikiak asmatzea... Parte-hartzea, euskaltzaleasuna, feminismoa eta ekologismoa gisako baloreei, aurrez berariaz azpimarratu behar zaie jendearen segurtasuna.

Inertziak apurto eta aurrera egiten jarraitzeko erabil daiteke urte arraro hau. Jai herrikoien eredu hegemonikoak mahai-gaineratzen dituen kontraesanen artean, azpimarratzekoak dira urtero jaietan izaten diren erasoak. Iaz Donostiako Aste Nagusian izan ziren hamaika eraso matxistek agerian utzi zuten milaka lagun biltzen dituzten jaigune handietan emakumeen* segurtasuna askotan ez dela bermatzen. Zer zentzu du, beraz, halako jaiak antolatzea? Lehen mailako arazoa da hau jaiaren bidez gizartearen eraldaketaren alde lan egiten duten mugimenduentzat, edozein erabakiren gainetik jartzeko modukoa. Ipintzen diren kartel eta apaingarrietatik harago, sortzen den giroa eta egiten den kultur eskaintza berpentsatzea beharrezkoa izango da, jai-guneen funtzio politizatzailea indartzeko.

Urteak dira jai herrikoien mugimendu askotan jai-ereduari buruzko gogoetak abian direla. Badira eredu ederrak, Gasteizko Zaharraz Harro edo EHZ festibala, bi aipatzearen. Erresistentziak gainditu eta aldaketaren urtea iritsi da, nork esango zuen, pandemia batek bultzatuta.

Eta instituzioei begira, osasun neurriak errespetatuko badituzte eta hau nola egingo duten zehatz azalduz gero, nork esango die herritarrei ezin dituztela beren jaiak ospatu? Jaiak debekatu baina uztaileko hauteskundeak deitu dituzten agintariak? ●



ARRAZAKERIAREN AURKAKO EZTANDA

NAZIOARTEA. AEBetako Minneapolis hirian poliziak George Floyd herritar beltza hil zuen maiatzaren 25ean. Egun gutxian, gertaerak haserre eta protesta mugimendu handia eragin du AEB osoan, arrazakeriaren, xenofobiaren eta polizia gehiegikerien aurka. Nazioartera ere zabaldu dira mobilizazioak, tartean Euskal Herrira. Irudikoa Bilboko protesta da eta Iruñean 2016an poliziaren eskuetan hil zen Elhadji Ndiaye ere gogoratu dute bertan.

INGURUMEN HONDAMENDIA

21.000 tona

erregai isuri ditu Siberiako Norilsk hirian dagoen zentral termoelektrokoak eta erregaia inguruko lur eta ibaiekin barreiatu da Artikoraino. Putinen Gobernuak ikerketa abiarazi du eta Greenpeacek Exxon Valdez-en istripuarekin konparatu du hondamendia. Errusiako Artikoraino sekula gertatu den hondamendi handiena dela onartu dute gobernuko ordezkariak.



CAF. CAFeko zuzendaritzari eskaera egin dio Boycott, Divestment and Sanctions mugimenduak: ez dezala kolaboratu "Israelgo apartheidarekin". Ekainaren 13ko CAFeko akziodunen batzarrera begira, Jerusalemgo Tren Arinaren proiektua geldiaraztea du helburu mugimenduak.



GOOGLE. Googlek 5.000 milioi dolarreko salaketari aurre egin beharko dio "ezezagun" moduan nabigatzen duten erabiltzaileen informazioa metatzeagatik. "Pribatutasun sentsazio faltsua sortzea" eta "iruzurra" egozten dio Googleri salaketa kolektibo batek.



ERASO MATXISTA. Zarauzko herriko tabernan lanean ari zela, 19 urteko emakumeak gizon baten eraso jasan zuen iaz. Gizonezkoa Ezker Abertzaleko kidea eta zinegotzi lanetan aritua da. Orain egin dute publiko gertaturikoa eta emakumeari babesa erakusteko elkarretaratzea egin dute herrian.

Plastikozko mahai tresnei agur

ARGIA

Hondakinen legearen aurreproiektua onartuko du ekainaren 2an Espainiako Ministroen Kontseiluak eta baita Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030 ere.

NEURRIAK

Hauek dira ezarriko dituzten neurrietako batzuk: derrigorrezkoa izango da iturriko ura eskaintzea tabernetan, eramateko janaria saltzen dutenek kobratu egin beharko dituzte plastikozko baso, tapa eta ontziak 2023tik aurrera eta ezingo da plastikozko pajitarik eta kubiortorik saldu 2021etik aurrera. Ipar Euskal Herrian aurten sartu da indarrean plastikozko mahai tresnak eta platerak debekatzen dituen Frantziako Gobernuaren legea.

HELBURUAK

2030erako 20 milioi tona hondakin murriztea du helburu, Espainiako Estatu osoan. Ekonomia Zirkularrak hierarkia bat ezartzen du hondakinak kudeatzeko, eta lehen maila prebentzioa da, ondoren berrerabilera, gero birziklapena, ondoren "balorizazioa" (hor sartzen dute errausketa ere) eta azkenik zabortegia. Bestiak beste, hiri hondakinen %60 birziklatzea du helburuetako bat eta ekonomiak eragindako hondakinak %15 murriztea, 2010ean zenbatu ziren 137 milioi tona horietatik.

QIAO LIANG JENERAL TXINATARRAK HONELA IKUSTEN DU AEB-EN ETA MENDEBALDEAREN GAINBEHERA

Nola ikusten gaituzte txinatarrek? Txinako *establishment*-aren begietan COVID-19 pandemiak zertan eta zenbateraino utziko dute itxuraldatuta mundua? AEBekiko tirabira ekonomikoa eta militarra nola epaitzen ote dira Pekindik? Taiwan dela eta piztuko ote dute hurrengo gerra handia? Globalizazioaren aro bat amaitzearen denean, botere banaketa nola gauzatu dezakete Mendebaldeak eta Txinak? Horien inguruan Qiao Liang jeneral txinatarrek esanak laburbildu ditugu.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Qiao Liang jeneralak erretretan sartu arren irakasle jarraitzen du unibertsitatean, Txinako Segurtasun Nazionalaren Ikerketetarako Kontseiluaren zuzendaria da. Hainbat liburu idatzi ditu, tartean bat bederen ingelese eta frantsesera ekarria: “*Mugarik gabeko gerra*”. Hong Kongen argitaratzen den *Bauhinia* aldizkariak elkarrizketaturik, Frantziako *Conflits* magazinak zabaldu du European.

ARGIAKO irakurleari ez diogu orain deskubrituko militarrentzako –izan txinatar edo Mendebaldeko– propaganda ere gerrarako arma dela eta menturaz estimatuko du Txinako elite politiko-militarrak darabilzkie argudioetako batzuk ezagutzea. Ohartarazita apirilean esanak daudela... Txinan koronabirusa kontrolatuta, European gordinean noiztzen ari eta AEBetan justu sufritzen hasi berriak zirenean. Geroztik egoera asko okertu zaigu AEBetan bezala European.

Hasteko, COVID-19ak munduan eragin duen astinduak ekarriko ote du AEBen eta Txinaren arteko gerra, zenbait hedabidek iragartzen duten moduan? Ez, dio Qiao Liangek. Batetik, inork ez die erasorik egin AEBei –ez litzateke inor ausartuko– baina, gainera, auzokoari gerra piztuta ez lukete konponduko ez epidemia eta ez lehendik zekarten krisia.

AEBek gerra egiteko logistika arazo larria dauka. Teknologia sofistikatueta AEB besteen aurretik doazen arren, dena ez da teknologia hutsez konponetzen: manufakturazko industria behar

du atzetik. Bestela esanda, armagintzan ere azken bataila fabrikazioan jokatzen da eta honetan, Mendebalde osoa bezala AEB gainbehera doaz: pilatuta daukaten arma stocka “janaz” –biltegia hustuz– ez bada, nola egingo diote gerra munduko fabrikatzaile handienari?

AEBek ahalmen zientifiko eta teknologiko handia eduki arren, ez daukate modurik horiek maila masiboan produktu bihurtzeko, COVID-19ak begien bistan utzi duenez: musuko maskara xume batzuk osatzeko ekoizpen kate osorik ez daukate eta! Arnasgailu modernoenen patenteak ere iparramerikarrek daukate, baina horietako bakoitzak daukan 1.400 piezetatik 1.100 Txinan ekoizten dira... eta ensanblatu ere bai.

Gerra ere manufakturan oinarritzen da, hori gabe ezingo zuten II. Mundu Gerra irabazi AEBek. Orain mikrotxipak aipatzen diren arren, garrantzitsuak izanik ere ez dira guduak irabazteko gai, ez bada arma eta ekipamenduetan aplikatuta, eta hau manufaktura-sare indartsu batek baizik ezin dezake egin. Horregatik dio jeneralak: “Gerra edo epidemia gertatuz gero, manufaktura industria sendo baten jabe ez den herrialde bat benetan sendotzat jo behar dugu?”.

Horretaz ohartuta, Mendebaldean gero eta gehiago aipatzen da Txinarekiko deskonektatuta lekuko produkzio kateak berreraiki beharra. Ez da hain erraza izango: non dauzkate hori egiteko gai izango diren enpresariak, ingeniariak eta langile kualifikatuak? AEBetan

eskulana Txinakoa halako zazpi kostatzen da. Nondik aterako dituzte etekinak konpainiek? Soldatak apal edukitzea posible bada garai berezietan, hala izango ote da egoera normalean?

Mendebaldeko fabrika berriak roboten erabileran oinarritzea ere aipatu dute Mendebaldean, Japonian barne. Baina robotak masiboki erabiliz gero, zer egin behar dute langabeziarekin, badute aski diru lanik gabeko jendetza hori guztia elikatzeke? Baldintza horietan, nola izan daiteke potentzia ekonomiko eta militar sendoa?

PAZIENTZIA ESTRATEGIKOA

AEBek, etxe barruko buruhausteei urrutiko erruduna bilatu nahian, tentazioa eduki dezakete Taiwanen independentziaren aitzakian Txinarekin gerra piztearekin, Hong Kongeko gatazka horren entremesa izanik. Egia da Txinarentzako Taiwan bere baitan edukitzea negoziatu ezinezko puntua dela, baina gerran sartzeko adina? Qiao Liangek ohartarazten die txinatarrei: erabaki on bat –Taiwan bereganatzea– une desegokian hartzeak erabaki hori bihur dezake kaltegarri.

Une oso garrantzitsuan bizi da Txina, garapen eredu finkatu nahian ari da eta oraindik asko falta zaio bere industria baliabide propioz asetzeko –asko ekarri behar du atzeritik eta asko saldu behar du atzerrian–. Txinari orain gerra kome-ni ez izateak ez du esan nahi besoak tolestatuta egon behar dutenik; gerraren eta bakearen arteko eremu gris zabalean

**QIAO LIANG JENERALA:**

"AEB-EK ETA MENDEBALDEAK AHALMEN ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKO HANDIA EDUKI ARREN, EZ DAUKATE MODURIK HORIEK GERO MAILA MASIBOAN PRODUKTU BIHURTZEKO".

jokatu dezake Taiwanen independentzia eragozteko, operazio militar mugatuak egin ditzazke erabateko gerra hasi gabe. Adibideak jartzen hasita, jeneralak aipatu du nola AEB gai izan ziren Txinaren Jugoslaviako enbaxada bonbardatzeko horrekin gerra hasi gabe, edo berdin berrikitan nola hil duten Soleimani jeneral iraniarra, Iranek gerra abiatuz erantzun barik.

Txinak saiatu behar du AEBen probokazioetan ez erortzen, lurraldearen batasuna ezin negoziatuzkoa den arren –alegia, Taiwan Txinaren atal bat dela–, uneotan AEBekiko gerra betean ez sartzen. Beti daude erantzuteko tresnak, arazoak baino konponbideak ugaria goak dira beti. Txinak otsoekin dantza egin behar baldin badu, ez du zertan AEBen erritmoan dantza eginik. Taiwangoa konpontzeko Txinak erakutsi behar ditu batetik, erabakitasun estrate-

gikoa eta bestetik, pazientzia estrategikoa. Hori bai, indar estrategikoari eutsi behar dio Taiwangoa indarrez edozein momentutan konpondu ahal izateko.

Funtsezkoena –Qiao Liang mintzo da beti– ez da zein neurritaraino den ikaragarria COVID-19 izurri hau, baizik eta ohartzea bai AEBei eta bai Mendebaldeari amaitu zaizkiela garai loriatsuenak, izurriak harrapatu dituela gainbehera zetozenean. Edozein aldagetatan, kanpoko faktore bat da sua pizten duena, baina erabakigarria barneko faktorea da. Oinez jarraitzeko lanak dituen ganbeluari adar mehe batek hautsi baitiezaioke bizkarrezurra.

Azken mende erdian, AEBek burutu dute ekonomia erreala gero eta gehiago baztertu eta ekonomia birtualean barnerratzeko bidea, geroago Europa eta gainerrako Mendebaldeak ere jarraitu dutena.

Arrazoi beragatik hondoratu zen Erromako inperioa ere, bere harrokeria eta handinahikeriagatik.

Mendebaldeak ondo aztertu behar ditu kontuok, tartean zer gertatu zaien bere osasun sistemari eta bere balio sistemari. Epidemia iritsi zaienean, nolaz harrapatu ditu babesik gabe? Mendebaldeak gutxienez hamabi hilabete edo agian bi urte beharko ditu bere ekonomia eta bere traumak konpontzeko. Prozesu horretan Txinari erruak egozte alferrikako denbora galtzea izango zaio. AEBek beren arazoak ezin konponduz, besteak bihurtu nahi dituzte errudun. Indartsuak zirenean, inork aurpegiaratu al zien hiesa zabaltzea? Edo I. Mundu Gerran bere tropek gripea Europara eraman izana? Txina indartsua baldin bada eta bere produkzio ahalmena sendo atxikitzen badu, inork ezingo dio eraso. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Facebook and Instagram icons.

Ainhoa Tirapu

ATHLETICEKO ATEZAINA ETA JOKALARIEN ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEA



EMAKUMEZKOEN FUTBOLAREN HITZARMENA BESTE EMAKUME BATZUENTZAT LAGUNGARRIA IZANGO DA



Apirilaren amaieran, pandemiaren erdian, bere agurra iragarri zuen Ainhoa Tirapu Athleticeko atezainak. Denboraldi amaieran erretiroa hartzea erabaki du zuri-gorriekin hamabost sasoi egin eta gero. Taldeko kapitaina joko zelaitik kanpo ere liderra izan da genero berdintasunaren lehian. Joan den otsailean sinatutako emakumezkoen futbolaren lehen hitzarmenaren aldeko borrokan jokalarien bozeramaile izan da. Partida hori irabazita, badoa.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nola hasi zinen futbolean?

Kalean eta ikastolan beti futbolean aritzen nintzen. Gurasoen lagun batek esan zidan Barañaingo Lagunak Elkartean bazela neska talde bat, udalak sustatua, eta izena eman nuen. Areto-futboleant hasi nintzen atletismoarekin eta irristaketa artistikoarekin batera, baina ezin guztiak uztartu eta futboleant jarraitzea erabaki nuen.

Orduko eta egungo egoera oso desberdinak dira?

Oso neska talde gutxi zeuden orduan.

Orain erabat aldatu da joera eta mutilen taldeak dituztenek neskenak ere ateratzen dituzte. Nik txikitan ez neukan erreferenterik. Futboleant emakumeen nire lehen irudi garrantzitsua 1999koa da, AEBek munduko txapelketa irabazi zutenekoa.

Zergatik hasi zaio ematen garrantzi handiagoa emakumeen futbolari?

Gure futbolak asko irabazi du telebista sartu denean eta estadioak ireki eta bete egin direnean. Aukera horiek ez badiara ematen, gure futbola ez da ikusten.

Azken Munduko Txapelketa telebistaz eman izana oso garrantzitsua izan da, adibidez. Aurten telebistarekin ika-mika izan dugun arren, azkenean hitzarmena sinatu dugu. Ikusiko dugu orain pandemiaren krisi honetatik nola ateratzen garen.

Zer gertatuko da hemendik aurrera?

Uste dut aprobetxatzeko moduko aukera bat izango dela. Normaltasunera itzultzen garenean seguruenera jende asko egongo da diruz larri eta gure partiden sarrerak merkeagoak direnez, horrek



Ainhoa Tirapu de Goñi

IRUÑEA, 1984



Barañaingo Lagunak areto-futbol taldean hasi zen hamar urte zituela. Denboraldi bat egin zuen Badajozko Puebla taldean, eta 2005-2006ko denboraldian ailegatu zen Athleticera. Hamabost denboraldi egin ditu zuri-gorriekin, denera 358 partida ofizial. Espainiako selekzioarekin 46 partida jokatu zituen 2015era arte, 2013ko Eurokopa eta 2015eko Munduko Txapelketa.

Kimikan lizentziaduna da eta Tokikologian Masterra du, baina ez du horretan inoiz lan egin, orain arte. *Bizitza eskukadaka* bere lehen liburua argitara eman zuen iaz, Miren Rubio kazetariarekin batera. Berriki emakumeen futbolak lortutako lehen hitzarmenaren negoziazio mahaian jokalarien bozemaile izan da. Euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenean ere izan da.



agian erraztu dezake familiak gurea gehiago gerturatzea. Hala ere, nire ustez, emakumezkoen futbola hobera doa eta hitzarmena lortzeko egin dugun borrokari eustea oso erabaki ona izan da.

Greba gogorra egin zenuten. Nola baloratzen duzue emaitza?

Ez zen erabaki erraza izan. Azken finen, grebara jotzen duzu oso aukera gutxi ikusten duzulako. Ikusi genuen momentua zela mahai gainean kolpe bat emateko eta indarra erakusteko eta hala egin genuen. Ikusgarritasun handia izan zuen eta oso indartsu aterakin grebatik. Lortu genituen gure eskaerak, gutxi gorabehera. Minimoak behintzat lortu genituen: kontratu duinak lehenengo mailako jokalaria guztientzat. Jokalariak ez badute hau lanbide bezala ikusten, talentua galtzen da. Orain jokalaria gazteek ikusten dute bide profesional bat irekita dagoela eta ikasketekin bateragarria dena, gainera.

Zer da, zehazki, lortu duzuen?

Gutxieneko %75eko lanaldia denon-

tzat. Orain arte librea zen eta baziren desberdintasun ikaragarriak. Batzuek astean hamabi orduko kontratua zuten bitartean, besteek lanaldi osoa zuten. Hortik aurrera, baja ordainduak izatea. Lesionatzen zarenean soldataren %100 lortzea, haurdunaldia babestea, lesio larri batengatik erretiratu behar izatekotan kalte-ordaina jasotzea, *bullying*-aren eta jazarpenaren aurkako protokoloak ezartzea. Urtebete baino gehiago eta greba bat kostatu zaigu %75eko lanaldiko 16.000 euroko eta lanaldi partzialeko 12.000 euroko soldata lortzea. Hitzarmena gure kontura lortu izanak, maskulinoaren beste laguntzarik gabe, asko ahaldu gaitu.

Gainera argi genuen emakumezkoen futbolaren hitzarmena beste emakume batzuentzat lagungarria izango dela, eta ez kirolean bakarrik. Berdintasuneranzko lana dago atzetik. Emakumea edozein esparrutan gero eta normaltasun handiagoz hartua izatea guretzat oso garrantzitsua da.

Zer gelditu da tintontzian?

Nire ustez lanaldiarena ez da aski. Jai-

tsi genuen %75era akordioa lortzeko, baina jokalariai gara egunean 24 orduz eta lanaldi osoa merezi dugu. Hurrengo bi urteetan ezinbestekoa izango litzateke lanaldiaren % 100 lortzea.

Argi dugu belaunaldi bakoitzak hurrengo belaunaldiari bidea hobeto uzteko konpromisoa hartu duela. Kontua da eboluzionatzen jarraitzea, bidezkoa denaren alde borrokatzea eta hazten jarraitzea.

Amatasuna nola gelditzen da hitzarmen berrian?

Haurdun geratzen bazara kontratua automatikoki berritzen da urte batez eta baldintza berdinekin. Horrela saihesten da haurdunaldian kontraturik gabe gelditzea. Honetaz gain, aukera ematen dizu haurdunaldiaren ondoren fisikoki sasoi berreskuratzeko eta gero zu izango zara talde horrekin jarraitu edo beste batekin fitxatzea erabakiko duena.

Haurdunaldia, oro har, traba bezala ikusten da?

Ez dakit, baina egia da orain arte izan ditugun kontratuekin, egoera prekario horretan, ez dut uste inori burutik pasatzen ahal zaionik ama izan eta ume bat hazteko aukera. Gainera, gaur egun amatasuna 30 urtetik gora planteatzen da, erretiratzen zarenerako uzten da, beraz, jokalaria gazteek ez dut uste hori dutenik buruan.

Zure planen artean ama izatea sartzen da?

Bai, sartzen da. Ikusi behar dut nola eta noiz, baina oso argi daukat ama izan nahi dudala.

Futbola matxista da?

Bai, baina gauzak aldatzen ari dira. Betidanik gizonezkoena izan den mundu batean sartzen zarenean horrelako jokaerak izatea ohikoa da. Ez da normala, baina bai ohikoa. Uste dut gero eta hobeto hartzen gaituztela emakume futbolariak, baina oraindik lan handia dago egiteko. Gelditzeko etorri gara eta ulertu behar dute futbola emakumeona ere badela.

Zergatik erretiratzen zara?

Energiarik ez zaidalako gelditzen. Futbolean eta bizitzan orokorrean, esparru guztietan, %100ean egon behar duzu eta nik uste dut heldu den urtean ez nintzatekeela horretarako gai izango. Horregatik pentsatu dut nahikoa dela eta

beste batzuei lekua uztea.

Argi nuen ez nuela bukatu nahi futbola gorrotatzen eta horregatik uste dut momentu ona dela nire ibilbidea bukatzeko.

Ustekabea izan da jende askorentzat...

Hala da. Orokorrean esan didate taldekideek eta mundu guztiak ez zutela espero. Niretzat oso argi zegoen denboraldiaren hasieratik. Argi neukan hau azkena izango zela eta ideia horrekin atera naiz egunero zelaira jakinda azkeneko partidua eta entrenamenduak zirela eta gozatzea.

Zaila da eliteko kirolaria izatea?

Hasieran ez zaizu zaila egiten, baina urte asko direnean, ikusten duzu ezin duzula gauza asko egin. Doktoetza ikasketak utzi behar izan nituen, eta Decathlonen nuen lana ere bai, ez nintzelako iristen. Baina horretaz gain ezin zara buelta bat ematera joan eta berandu iritsi etxera hurrengo egunean entrenamendua duzulako, adibidez, edo oportetean zaudenean ari zara pentsatzen ez duzula gizendu behar. Ezin duzu patxanga bat jokatu zure lagunekin edo beste kirolirik praktikatu lesioen beldurragatik. Ez dut gogoratzen noiz izan zen azken aldia eskiatzera joan nintzena. Gauza asko daude gero eta gogoragoak egiten zaizkizunak eta hor ere pista bat daukazu. Balantzan orekarik ez zegoela ikusten nuen.

Ekainaren bukaeran amaitzen da zure kontratua. Etorkizuna nola ikusten duzu?

Aukerak badituzte: kimikaria naiz, baina bada denbora luzea laborategi bat ez dudala zapaltzen, komentaria gisa aritu nintzen oso gustura udan Gol TV telebistan, atezaintzako entrenatzaile kurtsoak egin ditut... patxadaz pentsatu behar dut dena. Hori bai, Athleticen bazkidea naiz eta San Mameseko harmailetara joango naiz gozatzea.

Konfinamendua nola eraman duzu?

Uste nuena baino hobeto. Ez nago ohituta etxean egotera eta oso kalezalea naiz, baina antolatu naiz eta kurtso bat egin dut internetez, irakurri dut, taldekoekin entrenamenduak egin ditugu sarean eta arrabola erosi nuen bizikleta egiteko. Dena den, aurpegian haizea sentitzea garrantzitsua da kirolarientzat. Gainera talde kiroleko kirolaria izanda, bakarrik entrenatzea oso gogorra da.



AMONA

“Besaulkian eserita dago Osasunaren partidua telebistan ikusten. Bere oinen alboan nago ni eserita, lurrean, bizkarra besaulkiaren kontra eta patata poltsa belaunetan. Iganderoko errituala da. Lau urterekin Larragatik Barañainera bizitzera etorri ginenetik harreman estua dugu amonak eta biok, eta ia astebururo igotzen naiz bere etxera elkarrekin futbola edo beste kirol ekitaldiren bat ikustera. Telebistan ez denean, irratian. Baina beti kirola. Emakume zalerik apenas zegoen garaian egin zen bera Osasunako bazkide, ‘aitonak zaletuta’ dio, eta futbol zelaira ere tarteka joaten zela kontatu dit’.

48.121 IKUSLE

“Atlético Madrilén aurka ari gara Erreginaren Kopako final laurdena jokatzeko. 2019ko urtarrilaren 30a da, arratsaldea. Aparteko xarma dute Kopako partidek, norgehiagoka bakarrean jokatzen delako sailkapena. Katedrala lehertze dago. Haur asko daude horien artean. Negarrari ezin eutsi egonagatik ere, bizi izandakoa errepikaezina dela garbi dugu jokalariaiok. Estadio osoa emakume futbolarien partida bati begira izan da gaur. Guri begira. Athleticeen zalegoa bezalakorik ez dago’.

“SENSI”

“12 urte besterik ez ditut, belarrietarainoko adats laburra eta kolpe txikienarekin odoletan hasten den sudurra. Bizitza osoan zehar, goi-mailako futbolari izanda ere, itzal egingo didan izengoitiaren jabe naiz honezke-ro: Sensi, gaztelerazko sensible-ren laburdura. Nik ez nuen atezaina izan nahi. Ez nuen ez gogo ez adre nahikorik baloi bakar bat ere gelditzeko. Baina gero eta sarriago jokatzen nuen postu horretan. Ia beti’.

Emakumeen liga amaitutzat eman dute eta gizonena, berriz, laster martxan. Zergatik desberdintasuna?

Hor dagoen gatazka da. Legearen arabera gure liga ez delako profesionala. Kirol legea 1990ekoa da, nahiko zaharra, eta futbolari dagokionez, zehazten du izaera profesionaleko kirol-lehiaketa bakarra lehen mailako gizonena dela. Horrek darraren desabantaila argia da guretzat. Bada lege berri baterako zirriborroa eta espero dezagun laster onartua izatea.

Bestalde, egia da orain mutilekin esfortzu handia egin dela ligari berriz eusteko horrek mugiarazten duen diruagatik. Desberdintasuna itzela da, baina, hala ere, ez da ahaztu behar beste kirol askok ere futboletik datorren dirua hartzen dutela. Telebistako dirutik %0,5a emakumeen futbolerako eta beste kirol askotarako ematen da eta hori ere oso garrantzitsua da.

Zure ibilbidearen unerik onena eta txarrena?

Gustura nago egin dudanarekin eta asko gozatu dut, baina unerik onena, zalan-tzarik gabe, Athleticekin bigarren liga irabazi genueneko, 2016an. Hori ez dut sekula ahaztuko. Asko sufritzetik gento-

zen, urte askoan bigarren izatetik. Udaletxean eta Foru Aldundian izan genuen harrera, Bilbo osoa zuri-gorritz jantzita ikustea eta neska talde batek hori dena lortzea oso polita izan zen.

Txarrenak, aldiz, kopako finalak galdu ditugunean, gainera bat penaltietan eta beste bat luzapenean. Oso momentu gorrrak izan dira.

Zer da kiroltasuna?

Kirolak bizitzeko ematen dizkizun baloreak. Adibidez, talde kirol batean zaudenean taldean pentsatzea eta ez zure buruan soilik. Gauzak ez direla lortzen esfortzurik gabe egiaztatzea. Kirolarekin pertsona gisa hazi egiten zara. Nire kasuan adibidez, txikitan ez nintzen oso soziala. Askotan egoten nintzen bakarrik eta futbolari esker hasi nintzen aldatzen. Irakasleek esaten zidaten hobeto ikusten nindutela eta nota hobeak hasi nintzen ateratzen. Talde bateko kide sentitzen nintzen.

Zergatik futbolak pizten du hainbesteko pasio?

Edozein gauza gerta daitekeen kirol bat delako. Ez dute beti hoberenak irabazten eta horrek zalegoaren pasioa pizten du.

Gainera oso kirol eskuragarria da, oso hurbilekoa, oso zabaldua. Adibidez, Formula 1eko kotxeak ez dira horren erraz eskuratzen eta horregatik ezin horrenbeste zabaldu, baina nork ez dio ostiko bat eman baloi bati, edo botila edo poto bati?

Herriaren opioa da futbola?

Jendeari on egiten badio, ondo dago. Egun hauetan askotan entzun dugu futbolic gabe bizi daitekeela, eta egia da, baina beste gauza asko gabe bezala. Ez dut ulertzen zergatik dagoen kontrako mugimendu horren handia futbolaren aurka. Ez dut uste hainbeste gauza txarrik ekartzen duenik. Oso eskuragarri den kirol bat da, jendeari gustatzen zaiona eta edonon jokatzen ahal dena. Profesional mailan mugitzen den dirutza agian izan daiteke gaizki ikusteko motibo bat, baina futboleko maila asko dago, futbola leku askotan dago eta gauza on asko egiten dira. Common Goal bezalako ekimenen bitartez egoera go-gorretan dauden haurrei laguntzeko egiten dugun lana, adibidez, oso ondo dago. Batzuetan bakarrik gelditzen gara txarrenarekin, baina futbola hori baino askoz gehiago da. ●

Ekainekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29€ ● [aizueus](http://aizueus.com)



Iritziak

Sendatu ala sendotu



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Ez dira gauza bera sendatu eta sendotu, inondik ere. Pairatzen ari garen pandemia honetatik sendatuta irtetea omen zen guztion helburu deklaratu, baina beste xede indartsuago bat gailendu zaio, eta “Sendoago irteten gara” kanpaina zabalaz bete ditu Espainiako gobernuak berak Estatu osoko komunikabideen lehen orrialdeak eta pantailak.

Aitorpen hau oso esanguratsua da, zalantzarik gabe. Argi uzten baitu, modu horretan, zein den gobernu espainiarrak duen ardura printzipala: ez herritar guztion egoera klinikoa, baizik eta Estatuaren beraren osasun egoera sendotzea, Estatu espainiar batu bakar goitik beherakoari tinko eustea.

Izan ere, Gobernu espainiarraren jokabide estrategikoa gardena izaten ari da, zentzu horretan, osasun krisi larria nabarmendu zenetik hona. Gogoratu ditzagun hartutako neurriak: lehenik eta behin, gobernu bera indartu eta ahal guztidun bihurtu, goitik behera jokatzeko botere guztiak bereganatuz (alarma egoera famatua medio); ondoren, gobernuaren eguneroko jokabide “sanitarioan” Armada, Guardia Zibila zein Polizia mota guztiak ardatz bihurtu; horrez gain, erabaki nagusien gune zentrala Madrilen kokatu, eta bertako gobernu, parlamentu, komunikabide, epaitegi nagusi guztiak gaitu, aktibatu, gainontzeko herrialdeetakoak itzalean lokartuta utziaz. Esan daiteke, zinez, pandemiaren birusa bera baino zabal eta sendoago

Horixe baita egia, guretzat garrantza bada ere. Estatu espainiarra sendoago irteten dela azken hilabeteotako krisi sakonetik, eta Espainia horretatik kanpo, Estatu libre independentea nahi dugunok, aldiz, makalduta

hedatu dutela azken hilabeteotan, Estatu osoan zehar, beste birus maltzur bat: zentralizazioarena, “Espainia nazio bakarra” birusa, Madrilen epizentroa izan eta Estatuko lurralde guztietara intentsitate handiz hedatu dutena.

Orain eta horrela bai ulergarri egiten zaigu “Sendoago irteten gara” kanpaina maltzur horren esanahia. Horixe baita egia, guretzat garrantza bada ere. Estatu espainiarra sendoago irteten dela azken hilabeteotako krisi sakonetik, eta Espainia horretatik kanpo, Estatu libre independentea nahi dugunok, aldiz, makalduta.

Nola eta zergatik gertatzen ari da azken hau? Gobernu espainiarraren estrategia horri, alde edo moldez, bidea erraztu egin diogulako, sarritan traba seniorik ipini gabe, eta, batez ere, beste-lako alternatibarik eskaini gabe. PSOE/

UPren gobernu progresista delakoa *legitimazio-transferentzia bikoitzaz* baliatu da kasu honetan.


Osasun publikoaren izenean eta interes sanitario orokorra aitzakiatuz, Estatuaren egitura indartsu zehatz bat legitimatzeko egin du lehen transferentzia. Operazio honen kapitulu esanguratsuak izan dira, besteak beste, Orwellek berak mirestuko lukeen Estatu-bozeramale Anaia Nagusi bihurtu duen Fernando Simon, zeinen atzetik disimuluan gelditu diren *factotum* nagusiak, besteak beste Felipe seigarrena edo Pedro Sánchez; berdin, diskurtso ideologikoan asmatu duten “birusak ez du mugarik”, zentralizatorako tresna demagogiko baliotsua, nahiz eta gero, adibidez, Euskal Herria erdibitzen duen muga itxi. Gure nazio batasuna, “*Route barrée*” (bide itxia) delako, bistan da egunotan Izpegiko mugan zein beste guztietan. Beraz, osasunaren izenean, arlo guztietako erabaki nagusi guztiak Madrilen (edo Parisen) hartuko dira, orain pandemia garaian, eta batez ere jendea sendatu eta Estatua bera sendotzen den unetik aurrera.

Bigarren legitimazio-transferentzia politikan eta instituzio politikoetan gertatu da zuzenean: Estatu zehatz horren izenean “gobernu progresista” agertzen zaigunean, balizko izaera progresistaren azpian Estatu helburu horiek bere egin dituen. Eraginkorra gertatzen ari da horretan, alternatibak eta aurkakotasunak sarritan abstentzio bihurtu arte. Zer pentsatu ematen du, bai. ●

Konspiranoiak



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Bill Gates edota Soros; laborategiak, izan Txinakoak, izan AEBetakoak; txipdun txertoak eta 5G. Existitzen ez dela esaten duten negazionistak eta lurruneekin edo liberekin osatzen dela diotenak...

Neure buruari galdetzen diot zelan den posible. Ernegarazi ere egiten nau. Hainbeste jende... Baita espero ez zenukeena ere. Eta ulertzen ahalegintzen naiz.

Konspiranoiek arrakasta daukate, bai. Agian, benetako konspirazio eta jukutiaz -ekonomiko, geostrategiko eta abarrez- beteriko munduan bizi garelako. Albiste faltsuak arin zabaltzen dira, bai. Agian, guztiz egia ez diren edo, behintzat, alde bakar baten egia interesatuak entzun eta irakurtzera ohiturik gaudelako.

Informazio gainezkatzeak informazioen parekatzea ere ekarri du, dena balio eta prezio berean: edozeinek bideo kamara aurrean dioena nahiz diziiplina anitzeko ikerlari taldeen azterketak aldizkari espezializatueta. Baina denak berdin balio badu, ezerk ez du lauziri balio. Eta, dakiguna baino, garrantzitsua goa da jakitea nora jo behar dugun ez dakiguna argitzeko, kontziente, zenbaitetan, balitekeela erabateko erantzunik ere ez gotea.

Azalpenik arraroena ez da txaloga-riena, ezta zuzenena ere, azalpenik arraroena, normalean, horixe baino ez da: arraroena. Ockhamen labanaren printzipioa baliagarria da eta indarrean dirau, batez ere teoriak ez badira inolako ebidentzian oinarritzen.

Izan ere, konspiranoiek ebidentziak ezeztatzen dituzte, baina ez ebidentzia berriekin, baizik eta konfabulazio gero eta handiagoak irudikatzen. Honela, mugakoenera eramanda, lurra esferikoa dela erakusten duten ebidentzia guztien ezeztapen bakarra zera da, mendeetan iraun duen eta mundu osoko instantzia guztiak barne hartzen dituen konfabulazio erraldoia.

Beste batzuek balizko salbuespenak arau bihurtu nahi dituzte, txertoen kontrakoek egin bezala, daukagun bizi itxaropena higieenak, saneamenduak, antibiotikoei eta txertoek eman zigutela ahazturik. Lehen Munduko beste buruhauste bat: zelan egin uko milioika lagunek sekula izango ez dituzten bitartekoei.

Eta jarraitzen dut pentsatzen eta kon-
turtzen naiz horrelako teoria batzuetan sinisteak, zelan edo halan, *alternatibo* sentiarazten gaituela, ezkutuko zerbait desestali eta inork gutxi ezagutzen duen misterio baten jabe bagina legez.

Baina, batere *alternatiboa* ez den bote-
reak ere erabiltzen ditu konspiranoiak. Trump eta Bolsonaro baino lehenagotik; gogoratu, bestela, Francoren kontubernio judeomasonikoa.

Zaila da fundamentuz eztabaidatzea. Fede hutsa direlako, azken batez. Oinarri sasi-zientifiko batetik abiatuta, loturarik gabeko hizpide eta argudioen saltsa-maltsara egiten dute salto atoan. Eta, amaieran, nork bere iritzia daukala ematen zaio akabua.

Iritziak iritzi dira eta, popak bezala, mundu guztiak dauka bat, hau izenpetzen duenak barne, baina egitateak ez dira iritzia, gertaera konprobagarriak baino. Zientzia iritzia ez den bezalaxe. Eta zientzia diotenean, metodo zientifikoa aplikatzen duen edozein diziiplina daukat gogoan.

Arrakasta daukate, bai. Agian inguratzuten gaituen mundua kontrolaezina delako. Eta kontrol sentsazio horri eustearren, errudun argiak eta azalpen errazak nahiago ditugulako. Eta, arrazoi berberagatik, kasualitatea trabesten zaigu eta kausalitatea hobesten dugu. Seguruenik ez genuen ikasi posibilitatea eta probabilitatea ondo bereizten ezta, zerbait ulertzen ez dugunean, horrek ez duela gure ezjakintasunetik baino haragokorik adierazten ere. ●

Pareko eraikina



ANA MENDIA
EMAGINA

Erditze-gelatik zaharretxea ikusten da parez pare. Aurrekoan jabetu nintzen lehenengoz, ze leihora hurbiltzen naizen aldiro Irimoko tontorrari begiratu ohi diot eta ia ohartu gabe nintzen bizitzaren hasiera eta bukaera nola dauden aurrez aurre. Agian, konfinamenduan zehar, amaren bularrari goxo-goxo tiraka ari zaion jaioberriari artilezko galtzerdiak ehundu dizkio birramonak pareko eraikin horretan. Batek daki.

Ez dakit pandemia garaian munduratuakoei zer kontatuko ote dieten eskolan; nortzuen letrek idatzitako historia ikasgaraziko dieten institutuan. Nolanahi ere, nekez ulertuko dute SARS-CoV-2 delakoak piztu duen zalaparta mikroskopio bati begira. Agente infekzioso txiki horrek ederki asko azaleratu du zenbateraino den ezinezkoa errealitatea fisiko-biologikora mugatzea. Koronabirusak azkar batean larrugorritu ditu erdi-estalitako arrakala sozio-ekonomiko guztiak eta nire amona serio mintzatu zait: zahartzaroa oso gauza txarra da.

Amonak arrazoi du: oso gauza txarra da zahartzaroa. Ez da existitzen testuingururik gabeko prozesu biologikorik eta asfaltoa ez dugu esku zimelentzat eraiki; areago, eraikinak jaso behar izan ditugu ordainetan. Ontogeniaren antipodetan ere antzera; kasurako, larrialdi global honetan hegazkin-istripuetako logika-

ri eutsi diogu: jar dezala helduak oxigeno-maskara lehenbizi eta jar diezaiola haurrari ondoren. Kontua da kolpea ez genuela hegan gindoazela jaso. Kontua da haurrek ordaindu dituztela helduon maskarak. Kontua da ez garela zaintza zaintzen ari.

Akordatu naiz konferentzia batean entzun nuela egungo familia nuklearrak eta haurrak hezteko dugun era anomalia sozial gisa estudiantuko dituztela etorkizunean. Akaso zuzena da teoria eta sareak zuloz josita daude; akaso banatuegi bizi gara etxealдитik kanpo ere. Akaso esatera afrikarra egia borobila da eta “haur bat hezteko tribu osoa behar da”. Akaso kolektibitateari dei egin diogun honetan agerian geratu da triburik ez dugula.

Nago konferentzia hartako hizlariak ez ezik, amonak ere baduela antzeko errezeloa. Izan ere, lehengoan, bere etxetik irtetear nengoela, atea itxi baino segundo erdi lehenago, besaulkitik bota zidan ilobagatik: “ta zaindu ondo ttikie”. Amonak primeran daki zer den premiazkoa.

Pareko eraikinetik ezin irten artilezko galtzerdiak ehuntzen imajinatu dut bapo eginda lokartzen ari den jaioberriaren birramona. Gorka Urbizuren ahotsa irratia- ren bestaldetik korridorea girotzen: “Egunen batian, ateri denian, euriaz ariko gara”. ●

Galdutako hitzorduez



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Hedoi Etxartek behin baino gehiagotan egin du galdera eta ez dio inork erantzun: zenbat hitzordu geratu dira bertan behera COVID-19aren eraginez ospitale eta osasun etxeetan? Inguruan galdetuta sumatu dezakegu asko izan direla egin ez diren probak eta ebakuntzak. Luzamenduak ekarri du hainbaten osasun egoera malkurtzea, areago, hitzorduak noiz jarriko horren zain, askoren ezinegona handitu da. Onintza Enbeitak aipatzen zuen bere ustez batzuek koronabirusa ezer esan gabe pairatu dutela, lotsaz, gaitz

horrek ekarri duen estigmarengatik. Beharbada bai. Eta iruditzen zait hori eta beste gaitz batzuk isildu dituztela batzuek kontsultategian txanda ez eskatzeagatik. Kutsatzearen beldurrez. Beldurra. Zenbat aldiz aipatu eta sentitu dugu egunotan. Gaitzari eta kutsatzeari, baina nik beste adiera bat gehituko nioke: bakardadeari beldurra, eta ez bakarrik hiltzeari soilik, ohartu garrelako bakarrik egon garela geure buruarekin, etxean jendea eduki dugun arren. Eta ez dago nork bere buruari dion beldurra baino gauza ankerragorik. ●

Sexu abusua kirolean



**AINHOA AZURMENDI
ECHEGARAY**
KIROL AHOLKULARIA ETA
EHU-KO IRAKASLEA

Ez dut oroitzen lehen aldiz bortxatu ninduen data zehatza, baina ondo gogoratzen dut nire entrenatzaileak ehunka aldiz bortxatu ninduela 12 urte nituenetik, bere atzaparretan eduki ninduen lau urteetan zehar. Ez nintzen bakarria izan, eta hala ere, nire entrenatzaileak, heroia, kirol munduan errespetatua eta miretsia, 30 urtez neskatoak entrenatzen jarraitu zuen. Inguruan pertsona heldu asko ziren zerbait pasatzen zela susmatzen edo sumatzen zutenak, baina inork ez zuen ezer egin guri laguntzeko. Ez dago pertsona baten osasuna eta segurtasuna baino gehiago balio duen dominarik. Egun, kirolean, haurren eta nerabeen eskubideak etengabe urratzen dira. Egiari zor, abusatu nahi duenak hala egin dezake eta isilpean gorde luzaroan, kirol kulturaren neurrigabeko metodologiak eta jokabideak justifikatu egiten baitira dominak edo emaitzak lortzearen truke". Hauxe adierazi zidan Gloria Viseras gimnasta olinpiar oihak bere testigantzan oinarrituta gai honen inguruan idatzi nahi nuela esan nionean.

Gloriaren hitzen moduan, Pepe Godoy *Hiru Buruko Munstroa* dokumentalean,

Kirol esparruak badauzka berezko hainbat ezaugarri sexu abusua gertatzea ahalbidetzen dutenak; eta –esatera ausartuko naiz–, gertatu daitezen errazten dutenak

bere gaztetako futbol elkarteetan jasandako sexu abusua hitz egiten entzutean, barruak goitik behera astintzen zaizkit, amorruez. Horrelako basakeriak jasaten dituzten haurrek sufrimendu hori gertatzen hasten den une beretik aurrera, zama neurrigabea eramaten dute etengabe zornatzen duen zauri mingarri batean. AEBetako Larry Nassar kasuaz hitz egin nezake; kirol elkarte ezberdinekin ni neu lanean aritzean, bat-batean agerian jarri diren sexu-abusu kasuez; edota zendu den Michael Robinson-ek 2017an egin zuen irrati programan azaleratu zituen kasu guztiez. Hamaika adi-

bide dauzkagu, han eta hemen, hemen eta han. Eta ezin dugu jarraitu pentsatzen gurean horrelakoak ez direla gertatzen. Gure gizartean adin gabeek sexu abusua jasaten dute, baita kirol arloan ere. Bereziki kirol arloan? Ikerketa egin artean galdera hori erantzuteke egongo da, alabaina, ukatu ezin dena da gertatu gertatzen direla, eta kirol esparruak badauzkala berezko hainbat ezaugarri sexu abusua gertatzea ahalbidetzen dutenak; eta –esatera ausartuko naiz–, gertatu daitezen errazten dutenak.

Ezinbestekoa da kirol arloko erakundeetan kirolariak babesteko protokoloak ezartzea, eta arlo honetan parte hartzen duten agente guztiek gai honi buruz formakuntza jasotzea egoera eze-gokiak antzemateko, eta gertatzen denean nola jokatu behar den jakiteko. Kirol lorpen batek ez ditu inola ere justifikatzen abusu emozionala, fisikoa edo sexuala pairatzen duen pertsona batek bere bizitza osoan zehar jasan behar dituen ondorioak. Kirola gozagarria eta hezigarria izan dadin, kirola egiteko ingurune seguru eta osasuntsuak bermatu behar ditugu. ●



TXINA EREDUGARRI?

Beijing edo Shangai baino, Wuhan bihurtu da, 2020a hasi zenetik, Txinako hiriburua. Handik heldu zaizkigu notiziak eta irudiak, baita mundua geldiarazi duen izua ere. Koronabirusari aurre egiteko eredu gisa ere agertu da munduaren aurrean. Erreportajearen egilea taichi irakaslea da eta, bere lanbidea medio, azken 40 urteetan harreman estua izan du Txinarekin eta ekialde urruneko beste hainbat herrialderekin.

 JUAN GOROSTIDI BERRONDO

Txinak muturreko egitura demografikoa du. 1925ean Hu Huanyong geografoak lerro zuzen bat marraztu zuen ipar-ekialdeko Heihe eta hego-mendebaldeko Tengchong hirien artean ("Heihe-Tengchong lerroa"). Lerro horren mendebaldeak Txinako azaleraren %57a hartzen du eta, bertan, biztanleriaren %6a bizi zen 2002an. Ekialdeko %43an, %94a bizi da. Bertako hiririk jendetsuenean, Shangain, AEBetako zortzi hiri handienetan batera beste jende bizi da: 23 milioitik gora pertsona –baina guk, AEBetako hiriak irudikatzen ditugu beti "mundu modernoaren" erraldoiak bezala–.

Wuhan, Txinako hiri "ertain" bat da: 12 bat milioi biztanle eta Hubei 'pro-bintziako' hiriburua. Hubei osoak, 60 milioi biztanle ditu. Eta kasu honetan interesatzen zaizkigun ezaugarrietara joz, esan behar Wuhan dela Txinan "Lau Labeak" bezala ezagutzen denetako bat. "Labeak", haien uda sargori eta hezeengatik baina, lauretatik, Wuhan gainera, labez zipriztindua dago, literalki: hiri-gunea altzairuaren eta hormigoiazen fabrikazioaren nukleo bat da, baita Txinako eraikuntzarekin zerikusia duten beste industria batzuen ere. Txinako eraikuntzaren hiriburua kontsideratzen da. Bertan 2018-2019 bitartean zeuden eraikuntza lanen azalera Hong Kong irla osoa bezain zabala zen (80'5 km², Bilboren bikoitza).

MIRARI EKONOMIKOAREN PAGABURUAK

Baina datuok ez dute erakusten zer nolako bizimodua garatu den ingurune haietan. Bertan bizi den jendea, esaterako, bikoiztu egin da azken hogeita hamar urteetan. Jia Zhangke zinemagilearen lanak ikusi dituenak ondo irudika lezake bilakaera hori (ikus 2006ko *Sanxia Haoren / Still Life*). Jia, Shanxin jaioa da, Hubairekin muga egiten duen lurraldean, baina biek dute elkarrekin Yangtse ibaia (Txinako zibilizazioan, ibai Horiarekin batera, Egiptokoan Nilok izan duen lekua duena).

Trumilka hirietara doazenak "pape-rik gabeko" bihurtzen dira, *hukou* izeneko legeagatik. Horren arabera, bakoitzari dagokion lekuan –jaioterrian edo baimendutako desplazamenduetan– ematen zaizkio zerbitzu sozialak: eskola, mediku zerbitzua, etab. "Lekuz kanpo", eskubide horiek desagertu egiten dira. Eta milioika dira, gero eta gehiago, baldintza hauetan bizi direnak. Bestalde, maoismoaren garaian indarrean jarri zen *danwei* sistemari esker, langile bakoitzak eskubidea zuen bere lantokian oinarritzko zaintza medikua jasotzeko. Sistema hori desegin da 90eko hamarkadan abiatutako estatutak kontrolatzen duen sistema gero eta pribatizatu baten pean. Oraingo sisteman, enpresen eta langileen ekarpenen konbinazioak laguntza medikoa, pentsioak eta etxebizitza-asegurua





ordaintzen ditu. Hala ere, gizarte-segurantzako sistema horrek hornidura falta sistematikoa izan du; izan ere, enpresei ustez eskatzen zaizkien ekarpenak askotan ez dira kontuan hartzen, eta, beraz, langile gehienek poltsikotik ordaindu behar dute zerbitzua. Eskura dauden azken kalkuluen arabera, langile migrazioaileen %22ak baino ez duten oinarriko aseguru medikoa. Dongguan bezalako industria-zentro batean [Canton eta Shenzhen-ekin batera, 25 milioi biztanle batzen dituen, Hong Kong ondokoa] gizarte-segurantza ordaintzeak erdira jaitziko lituzke industria-irabaziak, eta enpresa asko porrotera eramango lituzke.

EPIDEMIAREN KUDEAKETA

Osasungintzan eta hezkuntzan egiten den gastu publikoa oso txikia da oraindik Txinan. Azken hamarkadetan dirutza bideratu da azpiegitura erraldoietara eta energia iturri merkeak lortzeko lehiera. Txinako industriak kalitate handiko eta esportaziorako balio handiko ondasunak ekoiztea lortu du, munduko merkatuko estandar zorrotzenen arabera fabrikatuak, hala nola telefono mugikor adimendunak eta ordenagailu-txipak. Baina barne-merkatuaren kontsumorako egiten diren produktuak maila kasarrekoak dira, eta ohikoak dira horrek

eragindako eskandaluak eta jendearen mesfidantza handia.

1950-1980 bitartean jendearen osasun mailak nabarmen gora egin zuen –batez besteko bizi iraupena 45 urtetik 68ra igo zen–, maila oso apaleko ekonomia batean. 1980tik aurrerako “eztanda ekonomikoarekin” batera, aurreko ereduaren abandonuak eta pribatizazioek nabarmen hondatu dute osasun maila. Batera gertatu dira urbanizazio prozesu azkarra, elikagaietako produktu industrial desarautuen ekoizpena eta botikei eta segurtasunari buruzko erregelamendu kaotikoa. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, egun Txinak osasunean egiten duen gastu publikoa, Brasilek, Bielorrusiak eta Bulgariak gatatzen dutenaren erdia da, gutxi gorabehera. Bitartean, bat edo bi gaixotasun kutsakor berri sortzen dira Txinan urtero, eta horiek epidemia bihurtzeko baldintzak ezin hobeak dira lurraldean.

KUDEAKETA EREDUGARRIA? MITOAK EZ DU ETENIK

Gero eta ahots gehiago altxatzen ari dira gure artean Txinako Gobernuaren ardura salatuz pandemiaren hedapenean: kasuak antzeman omen ziren 2019ko urrian Wuhanen ospatu ziren Munduko Joko Militarren ostean. Bertan, 100 he-

rrialdetako 10.000 atleta baino gehiago elkartu ziren. Txinak abenduan jakinarazi zion OMERi birusa Wuhanen detektatu zuela, eta Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bozeramaileak sare sozialetan aditzera eman zuen AEBetako kirolarien ordezkariak sartu zuela birusa. Dakiguna da, OMEk abenduaren 31n pandemia deklaratu arte, Wuango hegazkinen jarrailu zutela mundu osorako haien hegaldiekin.

Txinako Gobernuak aspaldian darma jokamolde bera “probintzietako” eta enpresetako arduradunekiko: oso larritzat hartzen da krisi zantzuak edo arazoak adieraztea, horrek eduki litzakeen ondorio kaltegarriengatik. Bakoitzak konpondu behar ditu ahal dituen moduan. Wuango medikuak hasi zirenean esaten arazo larri bat detektatzen ari zirela, lehen erantzuna haiek kartzelaratzea izan zen. Ondoren, muturreko erantzun bat egon zen gobernu zentraletik –hiri erraldoiak hutsik, konfinamendu zorrotza zenbait lekutan–, baina horren kudeaketa –Hubei eskualdean ezik, non Pekinek agindu zuen–, lekuan lekuko agintarien esku geratu zen, estatuak ez duelako sare eraginkor bat dena kontrolatu ahal izateko.

Ezer berririk ez, beraz, Txinako gobernantzari dagokionez. Harrigarrie-



DICKSON PHUA

na da nola hedatu diren European zehar “txinatarren eraginkortasunaren” laudorioak eta nola hartu den “Asiako eredu” hemen indarrean jarri beharrekoa bezala. Honen adierazgarriarik esanguratsuenetakoa da Byung-Chul Han filosofo korear ezagunak martxoaren amaieran adierazitakoa. Han-en aburuz, pandemia honek agerian utzi ditu emergentziari aurre egiteko bi molde: arrakastatsua bata, Asiakoa; eta porrot egin duena bestea: Europakoa.

Bere ustez, Asiako kudeaketaren arrakastaren gakoak bi dira: hiperzaintza digitala eta beren kultura-tradizioetik datorkien pentsaera autoritarioa –konfuzionismoa–. “Ekialdekoak obedienteagoak dira eta konfiantza handiagoa dute estatuan” dio. Europarrok, aldiz, indibidualistagoak gara, eta erabat zaharkitua dagoen soberaniaren eredu bati jarraitzen diogu –estatuen soberania aldarrikatuz, mugak itxiz, eta abar.–.

“Ez Txinan, ezta Asiako beste estatu batzuetan ere –jarraitzen du Han-ek–, ez dago kontzientzia kritikorik zaintza digitalaren edo *big data*-ren aurrean. Zoratuak dauzka digitalizazioak... Txinak europarrentzat imajinaezina den gizarte-kreditu sistema bat ezarri du, herritarren balorazio edo ebaluazio sakona ahalbidetzen duena. Herritar bakoitza

bere gizarte-jokabidearen arabera da ebaluatua. Txinan ez dago behatu gabeko eguneroko bizitzako unerik. Klik bakoitza, erosketa bakoitza, kontaktu bakoitza, sare sozialetako jardura bakoitza kontrolatzen da. Semaforoa gorrian zeharkatzen duenari, erregimena

Ehunka izan dira atxilotuak eta kartzela zigor luzeetara kondenatutako herritarrak gaixotasunari buruzko zurrumurruek zabaltzeagatik, edo koarentena hausteagatik eta kartzelak ere bihurtu dira infekzio foku handi

KORONABIRUS GARAICO ZIGORRAK

kritikatzen dutenekin tratua duenari edo sare sozialetan iruzkin kritikoak egiten dituenari puntuak kentzen dizkiote. Halakoei bizitza oso arriskutsua bihurtzen zaie. Aldiz, elikagai osasungarriak erosten dituenari edo erregimenaren aldeko egunkariak irakurtzen dituenari

puntuak ematen dizkiote. Nahikoa puntu dituenak bidaiatzeko bisatua edo kreditu merkeak lortzen ditu. Aldiz, puntu kopuru jakin baten azpitik erortzen denak lana gal dezake. Txinan gizarte-zaintza hori posible da, interneteko eta telefonia mugikorrek hornitzaileen eta agintarien artean datu-truke mugagabea gertatzen delako. Ia ez dago datuen babesik. Txinatarren hiztegiaren ez da ageri ‘esfera pribatua’ terminoa”.

Badira urte batzuk sinologoaren arteko eztabaida latza sortu zela frantse-saren eremuan. Alde batean, François Jullien, European ezagunena; bestean, Jean François Billeter suitzarra. Hona bigarrenaren iritzia: “Jullienen lan guztia Txinaren alteritatearen mitoan oinarrituta dago, gurearen guztiz desberdina den Mundu bat da haiena, gurearen aurkakoa”. Mito hori izugarri garatu zen XX. mendean, Marcel Granet sinologo frantziar garaikideen aitaren eta beste hainbaten lanei esker. Baina kontu hori askoz lehenagotik dator, eta –horra gakoa– txinatarrek sortu eta hauspotu duten mistifikazio batetik edaten du. Txinara hurbildu den ia orok irentsi du amua: “Txina, giza-esperientziaren beste poloa da. Hura da gure funtsezko *Bestea*, eta hura ulertu gabe ezin izango gara jabetu gure Ni kulturalaren hegiez eta



mugez” (Pierre Ryckmans, *Simon Leys*). Eta horrek, gure kategoriekin ulertezina egiten zaigunez, liluragarriak bihurtzen ditu txinatarrak. Zibilizazio txinatarraren eta europarraren arteko diferentzia ukaezina da, baina ekonomiara edo politikara jaisten garenean, erabat nahastu gaitzake lilura horrek. Aurtengo krisiari aplikatuz: “Hara txinatarrak: arazo larri bat izan dute, bai, baina guk erakutsi ez dugun gaitasunez egin diote aurre; pandemia garaitu dute, hemen baino hildako gutxiagorekin gainera”.

TXINA BERRIAREN MUGARRIAK

Txina post-maoistaren aroa joan den mendeko 80ko hamarkadan abiatu zen, Deng Xiaoping “Lemazain Txikiak” alderdi komunistaren eta estatuaren buruzagitzatik esaldi lapidarioen historiari pasako den hura bota zuenean: “Loriatsua da aberastea”. Bera izan zen 1989an, Sobietar Batasunaren suntsipenak gazteri txinatar askorengan piztu zuen aldaketarako grina nola tratatu behar zen argi erakutsi zuena, Tianan-mengo plazan protestan zeudenak sarraskituz: milaka hildako, milioi bat inguru zauritu, atxilotu kontaezinak... Belaunaldi berriek izan zuten bere odol bataioa. 90eko hamarkadan horren eza-guna izan ez zen antzeko sarraski bat

gertatu zen. Errepresioaren helburua erakunde budista bat izan zen orduan, Falun Dafa izeneko, 70 milioi partaide izatera ailegatu omen zena, eta estatuak arriskutsutzat jo zuena. Milaka izan ziren atxilotuak eta torturapean hildakoak, eta probatutzat ematen da asko

Eskualdetako agintariak
badakite, Txinako Gobernuaren
aginduak behar bezala
interpretatzeko gai ez badira,
gogorki zigortuak izango direla,
gerora, ustelkeriaren aurkako
borrokaren izenean

BEIJING-EN AGINDUEN INTERPRETAZIOA

eta asko erabiliak izan zirela organoen transplanterako merkatuan. Bitartean, Tibeteko edo Xinjiango mendebalde urruneko lurraldeetan, errepresio bortitzak ez du etenik: milaka atxilotu, torturatu eta hildako. Uigurren kasuak hartu dio lekua Tibetekoari azken urteotan,

bertako “berreziketarako” esparruen berri izan dugunean.

Han-en aburuz, ordea, txinatarrek ez dute joera kritikorik eta men egiten diote estatuari “konfuzionistak” direlako. Zoriontsu dira haien bihotz-taupada bakoitza, pentsamendu bakoitza *big data*-ri eskainiz, eta gero eta liluratuagoak gauden haien “kudeaketa eraginkorrarekin”. Lehenagotik ere zorutzen gintuzten egunetik egunera hazten ikusten genituen etxe-orratzekin eta gure enpresa aitzindariak lortzen zituzten kontratuekin.

MUNDUKO HEGEMONIA LEHIAN

Ezin ukatu Txinaren bulkada ikaragarria munduko ekonomian eta politikan. XX. mendeko bigarren erdia estatubatuarra izan zen bezala, XXI. goa txinatarra izango da, ziurrenik, haien berezko estrategiarako gaitasunarekin. Jakina da Txinako gobernuaren negoziotan dabilela aspaldian Afrikako eta Hego Ameriketako gobernuen, haien defizitak eta hornidura arazoak konpontzeko prest. Trukean, erraldoiak behar dituen errekurso naturalak eta haien negozio estrategikoetako bideak zabaltzen zaizkio; epe luzerako inbertsio estrategikoak dira. AEBekin duten “guda komertziala” agertzen da gure berrietan, baina gauzak askoz ere sakinagoak eta zabalagoak dira.



Wuhanen urtarilaren 24tik aurrera berrogeialdia modu eraginkorrean eza-rri zenean, agerian geratu zen Txinak duen gobernatzeko estila: estatu zen-tralak, leku guztietara ailegatuko den aginte-egitura formal eta eraginkorrik ez duenez, deialdi masiboak egiten ditu tokian-tokiko funtzionarioak eta hiri-tarrak mobilizatzeko. Horiek badakite, datozen aginduak behar bezala interpretatzeko gai ez badira, gogorki zigortuak izango direla, gerora, ustelkeriaren aurkako borrokaren izenean. Irizpide horiei jarraiki, herri batzuek beren ekimen bitxi eta zorrotzak hartu dituzte. Larrienak, Zhejiang eskualdeko lau hiri nagusietan hartu dira: 30 milioi pertsonarentzako pasaporteak egin dira, eta, horri esker, pertsona batek baino ezin du etxetik atera, bi egunean behin. Hong Kong inguruko 12 milioi biztanleko Shenzhen hiriko eta barnealdeko Chengdu-ko agintariak (13 milioitik gora biztanle) auzo guztiak konfinatzea agindu dute, eta hamalau eguneko koarentenan jartzen zituzten eraikin osoak bertan kutsatu bakar bat antzemanaz gero.

Ehunka izan dira atxilotuak eta kartzela zigor luzeetara kondenatuak gaitasunari buruzko zurrumurruak zabaltzeagatik, edo koarentena haustegatik, eta kartzelak ere bihurtu dira

infekzio foku handi. Lehen aldia da mailla horretako operazio bat gauzatzen dela Txinan. Jarduera ekonomikoa, berri, neurri batean baino ez da suspertu: dena arazorik gabe dabil dagoeneko arlo batzuetan, baina beste batzuetan, denak etenda jarraitzen du.

Ailegatzen zaizkigun berri-izpien arabera, nori sinetsi? "Txinaren erabateko eraginkortasuna" goraipatzen duten Berlinen bizi diren Han bezalako morroiei, ala egoera askoz ere kaotiko eta nahasiagoa dela diotenei?

DATORRENA ULERTZEKO GAKOAK

Orain arte bezala, Txinatik helduko zaizkigun berriak nahita nahasgarriak izango dira. Hori edozein boterek betidanik izan duen joko taktikoen erakusgarri baino ez da. Ez da ezberdin Europan edo AEBetan. Modu hanpatuan esaten den bezala, *big data* da kapital berria eta, estatuak baino, datu-oligopolio transnazio-nalek banatzen dituzte "informazio-kartak": betiko propaganda, alegia. Eta ohi bezala, ere, heltzen denaren eta esaltzen denaren artean antzeman beharko ditugu "garaiko seinaleak" –ez gara horretan antzinatetik oso urrutia.

Txinaren ekonomiak badu berezitasunik une zehatz honetan: munduko produkzio- eta distribuzio-zirkuitu

guztietan integratua egon arren, ez du finantzen marrazoen zirkuituetan sartu nahi. Hango bankuak, burtsak, balore-merkatuak, kapital-mugimenduak Txinako Alderdi Komunistaren kontrolpean daude. Kapitalaren armarik bel-durgarrienek, gizarteko eta munduko txoko guztietako balioa eta aberastasuna xurgatzen dituztenak, ez dute funtzionatzen Txinarekin. Txinaz kanpo-ko oligopolio handiek ezin dute hango ekoizpena eta sistema politikoa kontrolatu, eta ezin dute ekonomia suntsitu, Asiako beste herrialde batzuekin mende hasieran egin zuten bezala, nazioarteko kapital-erakundeek emandako aginduak bete ez zituztenean. Kasu horretan, gerraren "irtenbidea" martxan jartzeko tentazioa izan lezakete, baina bi aldiz pentsatu beharko lukete. Txinatik ikusita, "paperezko tigreak" izaten jarraitzen dute.

Aldi berean, Luca Paltrinierik esplikatu duen bezala, badirudi txinatarrak jabetzen direla gertatzen ari dena Txinaren etorkizuna eraikitzeko etapa bat besterik ez dela. Konturatzen dira munduan zabaltzen ari den etorkizun post-apokaliptikoaz, eta sortuko den eremu berri horretan, potentzia nagusi moduan irudikatzen dute dagoeneko beren burua. ●

Naparra

40 URTE BILA

Desagerpenaren samina

Lau hamarkada bete dira 1980ko ekainaren 11n José Miguel Etxeberria *Naparra* Ipar Euskal Herrian desagertu zenetik. Orduz geroztik, familiak hamaika ahalegin egin ditu auzia argitu, haren gorpuzkiak berreskuratu eta doluaren bidez, haien bizitzako kapitulu lazgarri bat ixteko. Ez da posible izan, ordea, eta zauriari oinazea dario oraindik.

 XABIER LETONA BITERI

José Miguel Etxeberria Alvarez 1978ko abendutik Ipar Euskal Herrian bizi zen errefuxiatu gisa, sasoi hartako beste ehunka euskal herritar bezala. Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea zen desagertu zenean, baina aurretik ETAKo kide ere izan zen. Frankismotik demokraziarako Trantsizioa bizi zen urte haietan estatu osoan eta indar bereziz Hego Euskal Herrian. Hamaika arrazoi tartean, euskal gizar-teak borroka guztien arragoa zirudien, besteak beste hainbat talde armaturen jardueragatik eta estatuaren errepresioagatik, besteak beste talde parapolizialak erabilita.

Etxeberria Iruñean jaio zen 1958ko apirilaren 14an. Aita Alegiakoa eta ama Iruñekoa, hiru anai-arreben arteko erdikoa zen. Iruñeko josulagunen ikastetxean ikasi zuen eta gazte ekin zien politika kontuei, sasoi hartan oso ohikoa zenez. ETA Politiko-militarreko *-polimiliak-* talde berezietan aritu zen eta hortik egin zuen jauzi ETA Militarrena *-miliak-* lehenbizi eta Komando Autonomoetara *-autonomoak-* ondoren.

Komando Autonomoak 1976-77aren



bueltan sortu ziren, garai hartako langile giro be-roaren abaroan eta ETA bien helburu teoriko berdintsuekin: independentzia eta sozialismoa. Baina haien antolaketa, pentsamoldea eta praktikak desberdinak ziren: hierarkia militarrik onartu gabe, haien arteko koordinazio maila bat zuten komando autonomoak ziren, langileen batzarra oinarri zuten eta antikapitalismoa zuten jardueraren ardatz nagusi. Anarkismoak eta Europako beste mugimendu autonomo batzuek eragin handia izan zuten haiengan.

Trantsizioaren bor-bor iraultzaile ho-

rretan ekin zion Etxeberriak borroka armatuari. Giro horretan, oraindik Iruñean bizi zela, ekarpen bat egin zuen ETAm-ren argitalpen batean, *Bakunin* goitizena erabiliz eta urte haietan Italiako mugimendu autonomoan gertatzen ari zenaz idatziz. Horren ondorioz, garai hartan Ipar Euskal Herrian errefuxiatu zegoen Kike Zurutuza Komando Autonomoetako kidearengana zuzendu zitzaizkion *milieta* bi ezagun, zera esanez: “Hi, halako eta halako idatzi dizkik *Naparra*-k eta guk uste diagu horrek gurekin baino zuekin egon beharko lukeela”. Zurutuzak dioen arabera, “sasoi

hartan, erakunde armatuen arteko harremanak guztiz ozpindu arte, oraindik errefuxiatuak nahiko nahasian ibiltzen ziren kalean edo pisuetan Ipar Euskal Herrian. Horregatik etorri ziren bi horiek niregana. 1978ko abuztuan izan nuen lehen zita *Naparra*-rekin, eta hortik aurrera gurekin hasi zen”. 1978ko abenduan Estatuko Segurtasun Indarrek Nafarroan *autonomoetako* hainbat kide atxilotu ondoren ihes egin zuen Iparraldera. Desagertu arteko hilabeteetan *autonomoetako* agiriak idaztera ere iritsi zen.



CELES ALVAREZ ETA ENEKO ETXEBERRÍA *Naparra-ren ama eta anaia, Ziburun, desagertuaren autoaren bolantearekin. Desagerpenaren egunetan gendarmeez esan zioten Naparra-ren aitari ea zerbait eraman nahi zuen autotik, eta aitak argazkiko bolantea jaso zuen. / ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA. Gogoan hartzeko izenak liburutik jaso.*

ESCALERAS SATORRA

Naparra Iparraldean zegoen garaian *autonomoek* haien artean sator bat zebilela salatu zuten: Julio Cabezas Centeno erreteriarra, *Escaleras*, Mikel bezala ere ezagutua. Hainbat arrazoiengatik salatu zuten sator gisa, besteak beste –beti ere *autonomoen* esanetan–, ez zuen arrazoi argirik eman errefuxiatzeko, hark esandako hainbat gauza ez ziren egia eta Donostiako Poliziaren Komisarian ikusi ei zuten polizia batekin modu adiskidetsuan berriketan.

Hori dela eta, *autonomoek* kontu-hartze bilera batera deitu zuten *Escaleras* Iparraldera, estu hartuz. Hark ez zituen onartu leporatutakoak. Bilera horretan parte hartu omen zuen *Naparra*-k ere eta gogor egin ei zuen *Escaleras*-en aurka. Jakin izan denagatik, *autonomoek Escaleras* hiltzea ere pentsatu zuten, baina hark jakinarazi zien bileraren berri eman zuela eta zerbait gertatzen bazitzaion “denak eroriko zirela”. Bileratik alde egiten utzi zuten.

Handik hilabete batzuetara, jadanik sator salaketak publikoki ezagunak zirenean, euskal erakunde armatuetako presoak batuta zituzten Soriako espetxera sartu zuten *Escaleras*, antza presoaren artean egosten zena jakin guran. Hango presoek behin baino gehiagotan jipoitu zuten. 1979an sortutako *Ere* informazio orokorreko astekarrian agertu zen argitaratua *Escaleras*-en aurkako salaketa eta hara bidalitako idazkia *Naparra*-k idatzi omen zuen.

90eko hamarkadaren hasieran *Escaleras*-i buruzko osagai berriak agertu ziren. Droge desintoxikazio prozesu batean aritutako pertsona batek aitortu zuen nola *Escaleras*-ek aipatu zion

Iparraldeko Hendayais ostatuan izandako atentatuan parte hartu zuela 1984ko martxoan, Jean-Pierre Chérid mertzenarioarekin batera. 1997an argitaratutako *Intxaurrondo: la trama verde* Pepe Rei kazetariaren liburuan ere agertzen da informazio hori guztia, eta oro har, *Escaleras*-ek GALEkin eta estatuaren estoldekin izandako harremana.

2019an argitaratutako *Chérid, un sicario en las cloacas del estado* (Chérid, sikario bat estatuaren estoldeetan) liburuan *Escaleras*-i buruzko datu gehiagoren berri eman zuen Teresa Rilok, Chériden emazte eta... *Escaleras*-en lehengusinak. Rilok kontatzen duenez, *autonomoekin* izandako arazoaren ondoren, hark



**“Autonomoek”
kontu-hartze bilera
batera deitu zuten Escaleras
Iparraldera, estu hartuz. Hark
ez zituen onartu leporatutakoak.
Bilera horretan parte hartu
omen zuen “Naparra”-k ere
eta gogor egin ei zuen
“Escaleras”-en aurka”**

“ESCALERAS” SATORRA

Auziaren kronologia

1980ko ekainaren 11 / José Miguel Etxeberria desagertu zen. Bere autoa Ziburun azaldu zen. 22an Batallón Vasco-Españolek (BVE) bere gain hartu zituen bahiketa eta hilketa, *Deia* egunkarira egindako dei bidez. Uztailaren 4an, egunkari berari eginiko beste dei batez, *Naparra* ekainaren 30ean hil zutela eta Donibane Lohizuneko Txantako izeneko ingurunean lurperatua zegoela jakinarazi zuen BVEk.

1982 / Frantziak auzia itxi zuen.

1999 / Familiak kereila bat jarri zuen Espainiako Auzitegi Nazionallean, auzia preskribitu aurretik. Ismael Moreno epaileak onartu egin zuen.

2004 / Epaille berak auzia itxi zuen, familia arras mindu zuen autoa eginez, bere deskribapenekin zalantzan ere jartzen zuelako desagerpena.

2006 / Patxi Alvarez *Naparra*-ren aita hil zen, 26 urtez semearen bila aritu ondoren.

2008 / Eusko Jaurlaritzako Terroismoaren Biktimen Harretarako Zuzendaritza familiarekin harremanetan jarri zen, indar parapolizialen biktimei buruz txostena egiten ari zela, José Miguelen datuak biltzeko. 28 urtetan lehen kontaktu instituzionala izan zen.

2014 / NBEko Indarrez edo Nahitaez Desagertutakoen Lan Taldeak auzia bere gain hartu zuen, *Naparra* biktima gisa aitortuz. Eneko Etxeberria Genevan izan zen kasua azalduz. Familiak lehen errekonozimendu instituzionala jaso zuen.

2015 / Nafarroako Legebiltzarrean aurkeztu zuen auzia familiak, poliziaren eta eskuin muturreko taldeen biktimen aitortza eta erreparazio legearen testuinguruan.

2015eko abendua / Iñigo Iruin familiaren abokatuak Iñaki Errazkin kazetariaren dei bat jaso zuen, esanez Ramón Francisco Arnau de la Nuez CESIDeko agente ohiak *Naparra* lurperatutako tokiaren berri eman ziola, Landetako Mont-de-Marsan-en.

2017ko otsaila / Poliziaren eta eskuin muturreko taldeen biktimei aitortza instituzionala egin zieten Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Legebiltzarrak eta Udalerrien Elkartek. Han izan ziren *Naparra*-ren senideak ere.

2017ko apirila / Espainiako Auzitegi Nazionalaren eskariz, Frantziako Gendarmeriak Mont-de-Marsan-en bilaketa lanak egin zituen bost orduz, Paco Etxeberria auzi-medikuak adierazitako bi tokietako batean. Ez zen ezer azaldu.

2018ko maiatza / Moreno epaileak auzia itxi ondoren, familiak helegitea irabazi eta epaileak berri bidali zien eskaera Frantziako agintariei beste bilaketa bat egin dadin 2017an miatu gabeko leku batean. Orain horren zain dago familia.

2018ko azaroa / Celes Alvarez *Naparra*-ren ama hil zen, 38 urtez semearen bila jardun ondoren.

2019 / Eusko Jaurlaritzak *Naparra*-ren desagertuaren txostena egin zezala eskatu zion Jon Mirena Landa zuzentzen duen EHUKo Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrari.

2020ko otsaila / Eneko Etxeberria eta Jon Mirena Landa, hurrenez hurren hilaren 12an eta 14an, NBEren egoitzan izan ziren Genevan, Indarrez Desagertutakoen Lan Taldearen aurrean auziaren gora-beherak emanez.

José Miguel Etxeberria, *Naparra*.



berarengana jo zuen eta emakumeak Galizian babestu zuen. Riloren esanetan, bere lehengusuak han ezagutu zuen Espainiako Estatuaren estoldentzat lan egiten zuen Chérid eta berarekin hasi zen lanean GALEn. Chérid 1984an hil zen Biarritzen, auto batean manipulatzeko lehergailu batek eztanda egin zionean. Bere alargunak dioenez, GALEk berak hil zuen mertzenarioa gainetik kentzeko. *Escaleras* ere hila dago egun.

BVE-REN AITORTZA

Datu horiek guztiak ikusita, besteak beste *Escaleras*-en ibilbidea, oso aspalditik ontzat ematen da *Naparra* Batallón Vasco Español (BVE) bahitu eta desagerrarazi zuela. Ekainaren 11n desagertu bazen, ekainaren 22an talde parapolizial espainiarrak *Deia* egunkariari eginiko dei baten bidez *Naparra*-ren bahiketa bere gain hartu zuen. Uztailaren 4an, egunkari berari eginiko beste dei batez, *Naparra* ekainaren 30ean hil zutela eta Donibane Lohizuneko Txantako izeneko parajeen lurperatua zegoela jakinarazi zuen BVEk.

Hasierako unean, ordea, hainbat bertsio zabaldu ziren. Komando Autonomoek uztailean bertan zabaldu zuten agiriak zioenez, *miliek* hil zuten: desagertu zen egunean haietako batekin bildu behar zen arma kontu batzuez jarduteko eta, erakundearen artean zegoen liskar giroak eraginda, hil eta desagerrarazi zuten. *Autonomoentzat* BVEk *Naparra*-ren aurka jotzeak ez zuen zentzurik, kontuan hartuta Ipar Eus-

Amaia Irigoien eta Oier -Eneko Etxeberriaren bikote eta semea- eta Eneko bera NBEko Genevako egoitzan, Indarrez eta Nahitaez Desagertutakoen Lan Taldearen aurrean auzia azaltzen.



kal Herrian garai hartan bera baino askoz ezagunagoak ziren errefuxiatuak zirela. Baina argudio honek balio zuen baita ere *milien* bertsiorako, eta hauek ere uste zuten ez zuela zentzurik halako errefuxiatu bat desagerraraztea Iparraldean horrenbeste “jende garrantzitsu” egonda. Horregatik, uste zuten *autonomoen* artean liskarren bat izan zela eta haiek hil zutela.

80ko hamarkadan tentsio handiko giroa izan zen *autonomo* eta, ETA eta Herri Batasunaren artean, oro har Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu -ezker abertzaleko adar indartsuenak biltzen zituen erakundearentzat erabiltzen zen izendapena- osoarekin. Horien gailurrak izan ziren *autonomoek* PSEko senatari Enrique Casas hil zutenekoa edo 1987an Portugaletako PSEren egoitzari kale borroka eraso batean *koktel*-ez egindako eraso, zeinaren ondorioz bi pertsona hil zituzten. Bi kasuetan HBk bat egin zuen Hegoaldean atentatuak salatzeako deitu ziren greba orokorrekin. Horren ondorioz, *Naparra*-ren familiak uue gogorak ere bizi behar izan zituen ezker abertzaleko hainbat giroan. Familiak, hala ere, ETAm-ko buruzagitzako kideen ahotik jakin izan zuen *miliek* ez zutela zerikusirik izan desagertuarekin.

DESAGERPENAREN TRAGEDIA

Gorpuzkinak agertu arte desagertuen familiak ez dute inoiz atsedenik hartzen. Inoiz ez. Bake hori gabe joan ziren Patxi eta Celes *Naparra*-ren aita-ama. Bila jarraitzen

du Eneko anaiak, beti bila: orain zirrikitu judiziala, gero prentsa, hurrengoan anaiaren kamiseta, edo urteroko Lizartzako baserriko omenaldia, legebiltzarra orain eta biktimen foroa gero, Mont-de-Marsanen bilaketa lanetan edo NBEko Genevako aretoetan... txostena hona, txostena hara, beti araka. Desagertu eta 40 urte ondoren *Naparra*-ren auzia bizirik bada, familiaren ahaleginagatik da bereziki. Dolua aiduru, egia, justizia eta mina dira etengabeko bilaketaren hiruki honen erpin eta akuiluak. Ezin etsi, familiak sarri gogoratu duen gisan, “José Miguel ahaztea, bigarrenagoz desagerraraztea litzatekeelako”.

NBEak dioen legez, *Naparra* arrazoi politikoengatik desagertua eta biktima bada ere, Genevako aitortza Gasteizkoa eta Iruñekoa baino lehenago heldu zen. Madrilek, bitartean, aski lan du bere borraroen lanak estoldetan estaltzearekin. Ikeritzeko interesik ez denean, 40 urte eta 400 ere aise pasa daitezke. Hor dira, halaber, Eduardo Bergaretxe *Pertur*, Jean-Louis Larre *Popo* eta Tomás Hernández desagertuen kasuak, oraindik argitzeke. Eta haien familiak ere beti zain.

Ikerketak betetzen ez duen zuloa arintzen laguntzen du oroimenak, gure orai-

naldia asetzeko iraganetik jasotako printzak dakartzan tresna horrek. *Bolante baten historia* dokumentala prestatzen ari dira Iñaki Alforja eta Iban Toledo datorren negurako, Enekoren lekukoa eta zama bere seme Oierrek hartu beharko ote duen airean utziz. Eta Jon Alonso idazle iruindarraren kazetaritza liburuak ere -2017an Tene Beka irabazi eta gero-udazkenean ikusi nahiko luke argia. Alonso gainera, *Naparra*-ren adinkide eta umetako laguna, eskolako gela berean ibili zen eta harekin kalean jolasean 10-

12 urteen bueltan. Gero bizitzak bakoitza bere bidetik eramane zuen eta 40 urte geroago haren oroimena dakar lagunak: “ETA bukatu zen, baina biktimak hor geratu dira, eta nik jorratu nahi nuen halako errekonozimendurik izan ez duen biktima bat, gaia azalera-tu, ez ahaztu, gogoratu”.

Edo “ahantzuraren zingiran” gera ez dadin, Lekunberriko abeslariak dioen bezala.

Eta oroimenaren jira-biran, betiko galderak dantzan: “Non duzue? Agertuko al da? Galdera ikur horietan bizi dira Eneko eta familia, orain berriz ere Mont-de-Marsanera begira eta, azken lau hamarkada hauetan bezala, esperantzara kondenatuak. ●

“
**Ekainaren 11n
desagertu bazen,
ekainaren 22an talde
parapolizial espainiarrak
“Deia” egunkariari
eginiko dei baten bidez
“Naparra”-ren bahiketa
bere gain hartu zuen”**

BATALLON VASCO-ESPAÑOL



**EMAKUME
KILONBOLAK**
ARTIKULATUTA DAUDE
EUGENHO DA PONTEN,
ETA HITZALDIAK EMAN
ETA ESKAINTZEN DITUZTE,
BESTEAK BESTE COVID-19-REN
ARRISKUEI NOLA AURRE EGIN
EZTABAIDATZEKO.

Afrikako lurraldeetatik Amerikara eramandako esklaboek oraindik ere preso zirela sortu zituzten komunitateek hartzen dute kilonbo izena, eta kilonbola bertako jendeei deitzen zaie Brasilen. Komunitate horietako batzuk azukre eta beste landaketatik ihes egindakoan sortu ziren, gizon emakume libre modura. Ezagunena Quilombo dos Palmares izan zen, Pernambuco; 20.000 biztanle izatera heldu zen eta ehun urtez baino gehiagoz erresistitu zuen XVII. mendean. Hango gobernadoreak gogor egin zion suntsitu zuen arte, horretarako *bandeirante* talde armatuak erabili behar izan bazituen ere.

Beste kilonbo batzuk ordea, landaketetan bertan sortu ziren, XIX. mende amaieran esklabotza ofiziala amaitu zenean nora joan ez zeukatelako; lurral-

dean geratu eta lurrak “okupatu” zituzten. Geroztik erresistentzia komunitate bihurtu dira. Horietako bat da Engenho da Ponte, Bahian.

Brasilen kilonbo gehien dituen estatuetako bat da Bahia. Kilonboak bi lekutan kokatzen dira: hegoaldean eta Recôncavo izeneko zonaldean, Salvador hiriburutik ordu pare batera autoz. Portugalgo kolonia zen garaian 37 azukre lantegi zeuden zonaldean, eta gehienetan lan eskua esklaboa zen, bai landaketan zein fabrian. Azukrearen gainbeherarekin sortu ziren komunitateak, ordura arte esklaboen herrixka izandakoak lantegitik “independizatzeko” hasi zirenean. Gaur egun 7.000 pertsona inguru bizi dira Recôncavoko komunitate kilonboetan, Engenho da Ponten 42 familia dira.

ARRAZAKERIA INSTITUZIONALA

Engenho da Ponteko kasua adibide bat besterik ez da, baina adibide adierazgarria. Lehenengo esklabo beltzak 1600 urte inguruan heldu ziren, baina aurretik ere indigenak esklabo bihurtu zituzten Bahiako parajeotan. Beltzak hiruherhun urtez, belaunaldiz belaunaldi, esklabo jaio eta esklabo hil ziren, 1888 arte esklabotza Brasilen legala baitzen. Legala eta instituzionala. Ez da denbora asko igaro: komunitateko 96 urtetako emakume batek bere aiton amonak esklabo izan zirela kontatu digu, aita ez, jaio zenean mangladietan zegoen kilonbora eraman zutelako, eta han egon zen ezkutatuta, askapen eguna heldu zen arte.

Tortura eta abusuak oraindik ere presente dira jendearen oroimenean, bai



KILONBOLAK

ATZOKO ETA GAURKO ESKLABOTZA BRASILEN

Engenho da Ponte Brasilgo Bahia Estatuko Recôncavoan dagoen komunitate kilonbola da. Bertan bizi direnentzat, hasieratik erresistentzia lurraldea izan da hau, dela esklabotzari, nola pobreziari edo pandemia bati aurre egiteko eremua. Baina zer dira komunitate kilonbolak? Nondik datorkie erresistitzeko indarra?

 ESTI REDONDO

azukre-findegia (*engenho*-ak) aztarne-tan, bai gaur egun familiek daramaten bizimoduan ere. Engenho da Ponteko bizilagunen elkarteko presidente Mara da Pontek dio askapen egunean beste esklabotza mota sortu zela. Beltzak libre ziren, bai, baina ez zuten ezer: ez diru, ez ikasketa, ezta lurrik ere. Eta beraz, beraien lan eskua merke saldu beharrean aurkitu ziren, hori edo... nekazari bihurtu. Eta orduan ekin zioten lurraren aldeko borrokari. Arrazakeria instituzional berri bati hasiera eman zitzaion, herrialdeak oraindik gainditu ez duena.

Komunitatean geratu ziren familiak nahiko lasai bizi izan ziren hasieran, baina 1960ko hamarkadan dende olioak produzitu nahi zuen enpresa bat heldu zen eta palmondoak landatzeko asmoz lur guztiak okupatzen hasi zen: eraikinak,

jendea eta bertako nekazaritza sunsitzeko arriskuan jarri zituen egitasmoak. Hala ere, biztanleek bertan mantentzea lortu zuten, etxeak eta inguruak palmondoetatik salbatu zituzten, eta enpresa –Opalma oraindik ere existitzen da, Bahiako hegoaldean– beraien ogibide bihurtu zen. Orain lurren jabe ofiziala da ordea.

Enpresaren gainbeherarekin eta beste krisi bat aurreikusiz, zonaldeko komunitateak elkartzen hasi ziren eta 1988ko Konstituzioak eskaintzen zien aukera aprobetxatzea erabaki zuten. Lurrak beraientzat aldarrikatzea. 2003an Komunitate Kilonbola modura autoizendatu ziren, baina lurren titulazioa oraindik ez da heldu. Mugimendu beltzarentzat lurren titulazioa esklabotzaren erreparazio historikoaren parte garrantzitsua

da, eta arrazakeria instituzionalaren kontrako borrokaren ikur bilakatu da. Arrazagatiko gatazkak ikusgarri egiteaz gain, esklabotzaren gaur eguneko ondorioak azaleratu ditu titulazioa lortzeko borrokak.

PTren (Partido dos Trabalhadores) gobernuak behin eta berriz Brasilgo estatuek komunitate beltzengan eragin dako kaltea konpondu beharreko auzia dela aldarrikatu arren, kilonbola gisa autoizendatu diren 1.536 komunitateetatik 86k baino ez dute lortu titulazioa; Bahian 718 eskaeretatik 597 autoizendatu dituzte, baina 18k bakarrik lortu dute titulazioa.

Lurra ez lortzeaz gain, komunitateok bizi duten egoera larria da. Hirurehun urteko esklabotzaren ondoren, mende bateko isilune instituzionala etorri zen,



LURRALDE KOMUNITARIOA. Goian, Engenho da Ponteko sukaldia eraikitzen. Behean, oinarri komunitarioa duen turismo etnikoa sustatzeko 'Rota da liberdade' ibilbidearen kartela, kilonboak adieraziz. Engenho da Pontera ia ezinezkoa da euri garaian autoz iristea.

arrazagatik gatazkari aurre egin beharrean, bera bakarrik desagertuko zela-koan.

Gaur eguneko zenbakiak argi erakusten dute hori ez dela gertatu. Arrazakeria ez da lurraren jabetzan soilik ikusten. Bahiako daturik ez dugu topatu, baina Brasilgoek erakusten dute 1,17 milioi pertsona daudela kilonboetan: %78ek Bolsa Familia –gobernuak ematen duen laguntza, pobreziaren adierazle bezala hartzen dena– jasotzen dute eta familien %75,6 pobrezia larrian bizi da; %23,5ak

ez daki irakurtzen; etxeen %62 sareko urik gabe dago, %36ak ez du komunik, eta %22,3ak ezta energia elektrikorik ere... Jarrai dezakegu portzentaje asal-dagarriak ematen, nahi izanez gero.

COVID-19AREN GAIKO IKUSEZINAK

Errepidea ez da Engenho da Ponterraino heltzen eta euri garaian kotxez sartzea ia ezinezkoa da. Eskola txiki bat dago –20 ikaslerentzat irakasle bat–, 3 eta 12 urte bitarteko umeak klase berean egoten dira egunean hiru orduz ikasten, eta gai-

nera txanda erdian hamaiketako egiten dute. Ez dago osasun zerbitzurik, osasun agenteak ere –komunitate barruan izan dezaketen alternatiba bakarretakoa– ez dira handik agertzen. Familia gehienek oinarriko soldata Bolsa Familia da, gobernuak ematen duen 170 errealeko laguntza (40 euro hilean). Eta mangladietan harrapatzen dutenarekin edota garaia denean dende olioak eginez irabazten dutenarekin osatzen dute bizitzekoa.

Zerbitzu falta horrekin, koronabirusak komunitate horietan gogor jotzeko arriskua biderkatzen ari da. Kilonboen koordinaziorako CONAQ elkarteak COVID-19aren behategia sortu du eta maiatzaren 29ko azken eguneraketaren arabera, 203 positibotatik 51 hildako egon dira komunitate horietan. Erakunde horrek azaldu duenez, "gaixotasunaren ikusezintasunak egoera dramatikoak ekarri du kilonboetara". Ez da transmisioen inguruko daturik ematen eta "azpi-erregistro" bat sortu dela salatu dute.

Brasilen pandemiaren bilakaera goraka doa etengabe eta egun kutsatu gehien dituen munduko bigarren herrialdea da, AEBen ondotik. Koronabirusa barrualdeko lurretara hedatzen ari da gainera, eta horietan are egoera zaurgarriagoan bizi dira herritarrak, osasun zerbitzu eskasaren ondorioz.

ESKLABOTZA EZ DA AMAITU

Bahian monokultiboak, meategiak eta energi "landaketak" bertako ekosistemekin amaitzen ari dira. Hala, komunitateak beraien jaioterriak uztera behartu dituzte, eta honek sortzen duen pobrezia esklabotza berrien arrazoi da. Bere lurretik bota duen enpresariaren esku geratzen da asko, beretzat lanean oso baldintza eskasetan, batzuetan ume direnetik gainera.

CPTak (Comissão Pastoral da Terra) esklabo lanari buruzko txostena egin eta zapalkuntza horren aurka ekimenak antolatzen ditu. Azken urteetan esklabotzatik erreskatatu dituzten langileak batez ere nekazaritzarako esplotatu dituzte: eukaliptoak moztu, soja landatu, egurra bildu eta ikatza egin, kafea, artoa, arroza, azukre kaña edo kakaoa produzitu... Baina itsas garraioan, errepideak konpontzen eta bestelako obretan ere aritu izan dira. Lan Esklaboaren Kontra-ko Kanpainako eragileei esker kasu asko eman dira jakitera, baina CPTaren esanetan Bahian eragile horiek gutxi dira oraindik. Gutxiegi. Ez Bahian, ez Brasil-en, esklabotza ez baita desagertu. ●



LURRALDE ANTOLAMENDUA COVID OSTEAN

Bestelako Euskal Herria eraikitze bidean

Bestelako bizi-eredu baten aldeko apustua egitea beharrezko jotzen du hainbat norbanako eta kolektibok. Egungoa birpentsatuz, etorkizunera egokitu eta *Euskal Herria pertsonentzat* manifestuan diseinatu dute. Ikuspegi sozialarekin, euskal herritarren bizitzak erdigunera ekarri eta oinarritzko zerbitzuen merkantilizazioa etetea lortu nahi lukete.

 GORKA PEÑAGARIKANO  DANI BLANCO

Etorkizuneko pandemiei aurre egiteko, justizia sozial-lean aurrerapausoak emateko eta planetari eragiten dion krisi klimatiko indargabetzeko, gure planetaren merkantilizazioarekin amaitu behar da berandu baino lehen, eta horren ordez, bizitza, forma guztietan, erdigunean jarri behar da". Horiek dira *Euskal Herria pertsonentzat* manifestuaren lehen lerroak.

Apirilean Kataluniatik jasotako ideia izan da abiapuntua: Massimo Paolini hiri antolamenduan adituak *Manifiesto por la reorganización de la ciudad tras el COVID19* artikulua argitaratu zuen, fokua Bartzelonan jarritz. Hiri eredua aldatu eta beste balore batzuk aldarrikatu zituen, nerurri zehatzak proposatuz. Manifestuak arrakasta izan zuen eta beste hiri eta lurraldeetan ere, bakoitzak bere errealitatea kontutan hartuta, antzeko aldarrikapenak antolatze-ko deia zabaldu zuten. Eta horixe egin dute Euskal Herrian Hiritik At

kooperatibako kideek: "Bartzelonako ikusi genuenean eztabaida piztu zen gure taldean, eta hona ekartzea pentsatu genuen. Azkenean, hiri edo leku zehatz batera mugatu ordez, lurralde osoko ikuspuntua ematea erabaki dugu". Artikulua abiapuntutzat hartu eta bereziki Euskal Herrian ematen diren elementu ezberdinak txertatu dizkiote.

Beren hitzetan, ez diote inori ezer eskatu nahi, etorkizunarekiko antolatu eta arduratsuak izateko deia luzatu nahi dute. 260 sinadura bildu dituzte dagoeneko, tartean jarduera profesionalen arkitektoak eta hiri eta lurralde antolaketaz arduratzen diren asko.

Hiritik At kooperatibako kide eta ekimenaren bultzatzailetako bat den Carlos Renedo pozik da jendearen erantzunarekin, nahiz eta bizi dugun egoerak ziurgabea bihurtzen duen parte-hartzaileen elkartzea proiektua aurrerabidean jartzeko; ikasturte berriarekin batera hastea aurreikusten dute.

Euskal Herria pertsonentzat manifestua

LURRALDE OSORAKO ETORKIZUN OREKATUA

- Landa-eremu eta hirien arteko harremana orekatzeko beharrezko inbertsioak egitea.
- Herri biziak eraiki: zerbitzuak lurralde osoko pertsonentzat esku-agarri izatea.
- Nekazaritza ekologikoa bultzatzea, baldintza duinak izatea eta kate ekonomikoan funtsezko izaera hartzea.
- Eremu publikotik ekimenak bultzatu: lur publikoen eta baliabideen banku bat sortu behar da monopolioari aurre egiteko.

MUGIKORTASUNAREN BERRANTOLAKETA ETA KALEAREN BERJABETZA

- Lurraldeen arteko loturak gizartearen ikuspegitik birpentsatu behar dira.
- Azpiegitura handien inbertsioa geldiaraztea (AHT, Supersur, ...).
- Hirietako mugikortasuna bizikletan oinarritzea horretarako laguntza publikoak eskainiz.
- Garraio publikoko sare eraginkorra eta ez-kutsatzailea antolatzea.
- Garraio pribatuaren erabilera nabarmen eta berehala murriztea kutsadura jaisteko.
- Espaloi kontzeptua aldatzea: kalearen zati bakarra izan ordez, hirigune guztiak pixkanaka oinez-

koentzat jartzea.

- Plazak eta parkeak berdisenatzea: espazio berean erabilera eta jarduera ezberdinak eman behar dira, pertsonen autonomia, sozializazioa eta haurren jolasa bultzatzeko.

HIRIAK (BIR)NATURALIZATU GIZA ONGIZATEA BERMATZEKO

- Landareen zein animalien biodibertsitatea sustatzea hiri-ekosistemak sortuz.
- Naturaren presentziak ongizate fisiko eta emozionala bermatzen du, defentsa inmunitarioak areagotuz.
- Haurren garapenerako hezkuntza aukera garrantzitsuak eskaintzen ditu.
- Hiri hutsarteak asfalto gabeko berdeguneak eta hiri baratze komunitario zein norbanakoenak sortzeko erabiltzea, diru-laguntzekin babestuta.
- Hiriguneen inguruan gerriko agroekologikoak sortzea, hiriaren hedapena mugatzeko eta hiriguneak hurbileko eta kalitatezko produktuekin hornitzeko.

ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUEN DESMERKANTILIZATzea

- Pertsona bakoitzak, inor baztertu gabe, bizitzeko lekua izan dezan bermatzea.
- Etxebizitza publikoa sustatzea

merkatua arautzeko metodo gisa.

- Etxebizitza kolketibo eta komunitarioen ereduak sustatzea, jabetza pribatu indibidualaren logika hegemonikoa hautsiz.
- Oinarrituko zerbitzuak bermatu ahal izateko enpresa publiko-koo-peratiboak berriro sortzea, zerbitzuok merkatuaren esku bakarrik ez baitira utzi behar.
- Adinekoek beren independentziari eusteko etxeko laguntza-zerbitzua indartzea eta baldintzak duintzea.
- Bizitza sozial eta komunitario aktiboa bermatuko duten kalitatezko egoitza publikoen alde egitea soilik.

DESZAKUNDEA

- Ekonomiaren desazkundea bultzatzea, kontsumoa nabarmen murriztuz.
- Eredu honetako turismoaren desazkundea sustatzea.
- Azpiegitura handiak birpentsatzea eta zentzuz egitea lan (aireportuak, portu-azpiegitura handiak...).
- Lankidetzeta-lurraldea sustatzea: hirien artean biztanleak, turistak, ekitaldiak eta abar bereganatzeko lehia logiken aurka aritzea.
- Hirien marka-k sustatzeko inbertsioak kentzea, bertako biztanleen, naturaren eta hiriaren merkantilizazioa agerian utziz.

METROPOLI-HIRIEN INBASIOA

Azken 30 urtean Euskal Herriaren aurreko historia guztian bezainbeste urbanizatu da gure herria, landa-eremua asko hustuz eta hiri-metropoliak betez. Populazioa geroz eta hiri handiago eta dentsagoetan bizi da; Gaindegiak emandako datuen arabera populazioaren %80 inguru. Mundu mailako fenomeno da. Kostaldeko herrietan ez hainbeste, baina Araba eta Nafarroa ari dira pairatzen gehienbat despopulazio prozesua: Jurramendin, Pirinioetan eta

Zangotzan, adibidez, eta baita Nafarroa Beherean zein Zuberoan ere beraien osotasunean.

Nafarroako Gobernuak urte hasieran emandako datuen arabera, 2008 eta 2018 urteen artean %0,4 handitu zen Nafarroako biztanleria. Bernardo Ziriza lurralde kohesioko kontseilariak azpimarratu zuen lurraldea ez dagoela despopulatze-ko "egoera larrian". Balorazioa egiterakoan, baina, ez zuen benetako errealitatea aintzat hartu: biztanleria nabarmen gu-

txitzen ari da zenbait eskualdetan. Euro-par Batasunak kilometro koadroko 12,5 biztanle baino gutxiagoko eremua hartzen du despopulatze arriskuko gunetzat, eta Pirinioetan eta Pirinioaurrean dute arazo handiena: hurrenez hurren, 4,1 eta 7,7 biztanle daude kilometro koadroko. Zangozaldeak (14,3), Ega-Montejurra eskualdeak (16,1) eta Larraunek (18,8) ere biztanle dentsitate txikia dute. Horri erantsi behar zaio bertan bizi direnen adinaren faktorea; aipaturiko eremuetan

dute biztanleriari zaharrena. Eta zerrendaren beste ertzean kokatzen da, noski, Iruñerria: kilometro koadroko 1.050,3 pertsona bizi dira.

Hiriaren eta landa-eremuaren arteko harremana orekatzeko beharrezko inbertsioak egitea eskatzen dute manifestuan. Despopulazioaren jarioa gelditu ezean nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorea kolokan geratzen da Renedoren ustez, eta modu honetan etorkizuneari ez da bermatuko ezinbestekoa den elikadura: “Lehen sektorea indartzeko apustua egin behar da, baina ez edonola: baldintza duinak eman behar dira jendea bertan bizi dadin, eta horrela elikadura burujabetza lor genezake”.

KALEEN BERJABETZA

Hirien populaketa masiboak horien artean mila moduz komunikatzeko bide eman du. Aurreikustekoa da datorren gainbehera ekonomikoa, eta horregatik azpiegitura handien inbertsio publikoa geldiaraztea eskatzen dute, lurraldeen arteko loturak gizartearen ikuspegitik birpentsatu behar direla azpimarratuz. Eusko Jaurlaritzak AHTra diru publikoa bideratzen jarraitzen du, eta ez dela bidezkoa dio Renedok: “Herritarrok ongizate indibidual eta kolektibora begira ari gara orain, baina badirudi instituzioak ezetz: hor ikusten da zer nolako herri egituretan bizi garen azpiegiturei dagokienean”. Maiatzaren erdialdean, egun gutxiren tartean eta herri ezberdinetan, 400 eta 500 urteko baserri bana eraitsi zuten eremu handiko supermerkatua eraikitze-ko eta AHTrekin jarraitzeko.

Hiri eta herrien antolamenduaz hausnartzeko eta birpentsatzeko eskatu dute, beharrezkotzat jotzen baitute pertsonen kaleak berreskuratzea; logika honetan: lehenengo pertsonak, ondoren bizikletak, garraio publikoa eta garraio pribatua. Kaleak “bizigarriago bihurtu” behar direla dio Renedok, eta bizitzaren funtzio gehienak gertu, oinez joateko moduan, gauzatu beharko liratekeela. Alegia, lana, aisialdia eta beharrezkanak asetzeko zein eskuratzeko lekuek donorentzat irisgarri egon behar dutela. “Multifuntzionala behar du izan”, gaineratu du.

Kutsadurak eta bizi-kalitateak lotura zuzena du kontu guzti honekin. Konfinamenduak %17 murriztu du CO2 gasaren isurketa munduan, baina pandemia pasatzean ohiko mailara itzuli edo areagotuko da. Euskal hiriburuetan bereziki, nabarmen gutxitu da trafikoa; Donostiako mugikortasun zinegotziak udako oporraldia-



ri begira auto-pilaketak desiratu egiten dituela adierazi zuen elkarriketa batean, seinale ona delakoan.

Aldi baterako bi metroko distantzia fisikorekin neurria ezartzea une askotan ez dela “erreal” salatzen dute, hiriguneak ez baitaude horretara diseinatuak; galzadak pertsonen eskaintza eta bidegorri sareak handitzea proposatzen dute. Urbanizazio planetan naturaren presentzia areagotu behar dela ere badiu Renedok: “Porlanez bete dugu dena. Ibaiek berreskuratu behar dira, ibai-ertzak, natura oro har. Gure bizitzetatik ezabatzen ari gara pixkanaka”. Plazen eta parkeen berdiseinatzea ere ekarri beharko luke horrek, haurren garapenean mugarri izateko.

DESMERKANTILIZAZIOA ETA DESAZKUNDEA

“Pertsonen oinarritzko zerbitzuak ez dira salgaiak; merkatuaren logika dago eta hautsi egin behar da”. Biztanle orok ezin dituela beharrezkanak asetu dio Renedok, guztiek ezin dutelako prezio eskuragarri edo tasatu batean oinarritzko zerbitzua den etxebizitza bermatu. Alokairuen egungo sistemarekin amaitu behar dela uste du, zentzuz arautuz. “Oinarritzko eskubidea da eta ez da bermatzen; are gutxiago krisi egoeretan”, gaineratu du.

Bigarren irakurketa interesgarri bat ere egiten dute manifestuan. Etxebizitzari dagokionean, konfinamendu garaioan are ageriago geratu da beste gabezia bat: etxebizitzaren diseinua. “Zenbat lagun egon ote dira kalea ikusi gabe; arnasa hartu gabe; terrazarik edo leihorik ez dutelako edo apenas dutelako; me-

tro koadro oso gutxian pertsona asko elkarbizitzen; eta abar luze bat”. Diseinu arkitektonikoen birpentsatzea garrantzitsutzat jotzen du Renedok, baina horrez gain, etxebizitza publikoa sustatzeko planak proposatzea ezinbestekoa dela uste du, ahal den heinean jabetza pribatu indibidualaren logika hegemonikoa baztertu eta etxebizitza kolektibo eta komunitarioen aldeko apustua eginez.

Horretarako, hiriburu eta kostaldeko herrietan turismorako bideratutako etxebizitzaren kopurua nabarmen murriztu behar dela diote. Bigarren etxebizitzaren fenomenoak bertako herritarren eta batez ere gazteen bizi-baldintzak prekarizatu dituela azpimarratzen da manifestuan, prezioak garestituz eta epe motzeko lanak sustatuz. Hargatik, hainbestetan idealizatzen den hazkunde ekonomikoa “desazkunde” bilakatu behar dela uste dute.

“Aipaturiko guztia gainera, luze-rako jo dezakeen hausnarketa mahai gaineratu behar dela uste dugu: kontsumoa murriztuta bizi gaitzake?”. Euskal gizartearen kontsumoa erriaraino barneratuta dagoela, eta hura murriztu edota egokitu ezean biztanleria osoaren bizi-kalitatea orekatzea edo bermatzea zaila izan daitekeela uste du. Aberastasuna ondo banatzea dela lehendabiziko zeregina dio Renedok, eta gutxiago kontsumituta, biztanleriaren bizimodu hobetuko litzatekeela uste du: “Lelo batetik harago, ariketa hau egin behar dugu: nola egokitzen dugu gure bizimodu gutxiagorekin bizitzeko, errekurtsu minimoekin mantentzeko”. ●

Eskola itzulera

Atzera ere oker jokatzeko ari gara umeekin?

COVID-19aren alarma-egoeraren lehen unetik, konfinamendu zorrotzak haur osasuntsuengan eragin duen albo-ondorio negatiboak eta haren zentzurik ezari buruz ohartarazten saiatu gara lerro hauen egileok. Eskoletako jarduerari berriro ekiteko azkenaldian iragarritako neurriak ere desegokiak dira: ez dira justifikatzen ikuspegi mediko-zientifikotik, sentikortasun-falta berbera dute eta krisi-kudeaketa zentzugabe honengatik nahikoa zigortuta dauden gazte batzuk berriz traumatizatzeko arriskua dute.

 HEIKE FREIRE / JOSE MARIA PARICIO

Beste herrialde batzuetako zenbait ikastetxetan ikasturte-hasierako irudi harrigarriak erakusten dute inork joan nahiko ez lukeen eskola hotz eta robotikoa: maskaratutako haurrak, ilaran, metro bateko distantzian; zinta zuri eta gorri estalitako gela soiletan; maskara baten atzean dagoen irakasleari entzuten; pertsonen aurkako helikoptero erako kapela bitxiak; patioan, karratu zuri erraldoiek bereizita...

Neurri horietako gehienak haur eta gazteekin inplementatzearen zailtasunak eta eromenaz jabetzeko ez dago zer-tan hezitzaile izan behar. Hori lortzen arrakasta izateak ere, paradoxikoki, irakaskuntza-lanaren porrota adierazten du. Zabarkeria eta haurren eta haien premien aurkako tratu txarrak izatetik gertu dago eta.

Pedagogikoa ondo dakigu haurretan emozioa dela nagusi, hitzik gabeko komunikazioa, diskurtso arrazionalaren gainetik. "COVIDetik hobeto babesteko da" moduko mezu esplizituak ez dute

inoiz hezten. Aitzitik, behartutako ekin-tza eta portaeretan isilean adierazten diren ideia eta balio inplizituak irmoki inprimatzen dira garapen bidean den haurren izaera delikatuak: "Zure gorputza arriskutsua da besteentzat. Zure ikaskideen gorputza arriskutsua da zuretzat. Zure familia ez da ongi etorria hemen".

Era horretako mezuak guztiz desegokiak dira edozein egoeratan. Zentzuzkoa al da eskola itzulera COVID-19aren arabera antolatzea, eta ez hezkuntza-premian oinarrituta?

ESKOLA HUMANOAGOA SORTZEKO AUKERA

Hala eta guztiz ere, COVID aukera bikaina izan daiteke eskola gizatiarrago baterantz aurrera egiteko, norberarekiko, bestearekiko eta naturarekiko kontaktuan oinarritua, zeinarekin batzuek amestetan eta lanean baitaramagu azken hamarkadetan. Hauek lirateke bere ezaguarrietako batzuk:

ESKOLA INTIMOA

Lehenik eta behin, ezinbestekoa iruditzen zaigu ratioak jaitea, irakasleen aldarrikapen historikoa, baina ez segurtasun distantzia mantentzeko, hezkuntza, zaintza- eta osasun-irizpideengatik baizik, ongizate fisiko, mental eta sozial gisa ulertuta. Intentsitate eta ñabardura ezberdinekin bada ere, COVIDen garaiko haurtzaroak kolpe gogorra jaso du. Ikerketa batzuen arabera, laurtekoak antzietatea du entzierroaren ostean. Etxea da leku seguru bakarra, eta askori kosta egingo zaio berriro ere berdinekin egotera ohitzea. Eskolak berotasun osoz hartu beharko lituzke, talde txikitan, bi- zipen traumatiko eta ezohiko horiek lantzeko eta integratzeko behar dituzten intimitate-espazioak eskainiz. Beren buruarengan, besteengan eta bizitzan konfiantza eta segurtasuna berreskuratzen lagundu beharko lieke.

Zaintzan zentratutako komunitate txikiak sortzeak errazagoa egiten du balizko kutsatzearen kontrola eta jarraipena



ANNIE SPRAIT (UNPLASH)

egitea. Jatorrizko familietan bezala, pertsonak elkar ukitzen dute eta elkar zaintzen dute, familia zabalduak sortzea da kontua, ia beti pertsona berberekin osatuak, beren burua zaintzeko konpromisoarekin eta erantzukizunarekin. Bizitza ospatzen duen eskola bat (heriotzaren beldurrean zentratu ordez), laztanek, besarkadek, immunitate-sistema indartzen dutelako.

ELKARREN ARTEKO ESKOLA

Ratioak jaistean profesionalak kontratatatu beharko dira, haurrak teknologien menpe, etxean edo ikastetxeko liburutegian utzi beharrean. Eskola robotiko horren zurruntasunaren aurrean, ikasgaietan bakarrik fokua jartzen duena, balia dezagun egoera pertsonengan zentratutako eskola organikoago eta malguago bat egiteko. Irakasleak kontratatzeaz gain, familietako boluntarioengana, elkarteengana, praktiketako ikasleengana jo daiteke. Aniztasun horrek eskuragarri dauden talentuak eta

gaitasunak biderkatzen ditu, giza bero-tasuna kaltetu gabe.

Beste aukera interesgarri bat da noizean behin uko egitea irakaskuntzaren aldibereketasunari eta eskola graduatuaren zurruntasunari, adin desberdinetako haurrek osatutako talde malguak antolatzea, non handienek beren ezagutzak partekatuko dituzten eta txikiene-kiko erantzukizunak hartuko dituzten.

ESKOLA KOHERENTEA

Krisi honen alderdirik zailenetako bat gure bizitzak kolpetik inbaditu dituzten arauen ugaritzea izan da. Horietako batzuk zorrotzak eta debekuzkoak, zentzurik gabeak, azaltzeko zailak -areago haurrei-; beste batzuk anbiguoegiak, ulertzeko eta interpretatzeko zailak. Osasunez eta erantzukizunez hazteko, haurrek arau-sistema koherentea behar dute, gogoeta egiteko, ulertzeko eta azaltzeko, parte hartzeko eta, beharrezkoa bada, aldatzen laguntzeko. Hori herri baten hezkuntza moral, politiko eta de-

mokratikoaren funtsezko alderdia da, eta eskolak ezin du alde batera utzi.

BIRNATURALIZATUTAKO ESKOLA

Natura funtsezko erresilientzia-faktorea da konfinamendu ondoko haurtzarorako. Hazteko eta osasuntsu garatzeko behar duten guztia ematen die haurrei, maila fisikoan, emozionalean, sozialean, sortzailean eta intelektualean. Segurtasuna eta konfiantza berreskuratzeko. Ikasgelen ordezko espazioak eskaintzen ditu, zaintza-komunitate txikiak hartzeko: birnaturalizatutako patioak, lorategiak, baratzeak, zuhaitziak, hondartzak, parkeak eta inguruko plazak. Naturarekin kontaktuan egoteak zailtasunak errazago gainditzen lagunduko die haurrei, eta haien kronifikazio posiblea prebenitzen.

Beste eskola batzuk posible dira koronabirusaren ondoren, baina birusarekiko beldurrean oinarrituta planteatzen ari dena eta hezkuntza-beharretan oinarritzen ez dena ez da egokia. ●

IMANOL AZKUE

Historiari begira, euskararen betaurrekoak jantzita

Euskararekiko jarrerak, usteak, jokaerak, sentipenak eta bizipenak jasotzea ez da samurra historian 200 urte atzera eginez gero. Erdara jauntxo eta jabe den eremu batean, dokumentu ofizialetan indusketa lana eginez, jaso gabe geratutakoa edo erdi ezkutuan adierazitakoa argira ateratzen saiatu da Imanol Azkue (Zumaia, 1965). Artxibategietako agiri-mendietan xerka eta xerpa aritu da, martxoan aurkeztu eta argitaratze bidean den *Euskara Zumaian 1766-1966* lana osatzeko.

 **AXIER LOPEZ**

11.000 euroko beka, 18 hilabeteen ikerketa egiteko. Lanean emandako hilabeteak, jasotako milaka euroak baino gehiago dira.

2019an lanaldia murriztu eta asteen egun bat eskaini nion. Lanordutan jarriz gero, ez du konpentsatzen. Ez bada gogo berezia eta motibazio handia duzulako eta emaitzak bete egiten zaituelako. Hori da nire kasua.

Zerk bultzatu zaitu?

Zumaiaiko historia ezagutzea eta euskararekiko interesa. Horrez gain, baliatu dut euskaraz aparteko beste alderdi batzuk ere jasotzeko. Aktak begiratzen hasita, herriko historia eta oso pasarte politak daude, ondoren *Baleike* hedabidearen bidez zabaltzeko.

Euskararen jatorria edo biziraupenaren arrazoiak ez dira iluntasunez betetako galdera

bakarrak. Askoz gertuagoko garaiez ere ez dago argi handirik.

Gero eta atzerago joanda orduan eta gutxiago dakigu. Areago hizkuntzaren ikuspegitik. Argi pixka bat ematen saia-

tu naiz, euskararen aldetik. Adibidez, 1800en Zumaia herri euskalduna zen ala ez, ez nekien. Eta orain, seguru esan daiteke baietz. Frogak daudelako.

Hizkuntza baten historia soziala.

Hizkuntzarena baino hiztunena. Pertsonena. Nola bizi ziren, zer eta zenbat hizkuntza zekiten, zergatik, bakoitzetik zenbat, zer egoeratan eta non erabiltzen zuten hizkuntza bat ala bestea, zer funtzio betetzen zuten, ea hizkuntzarik ikasteko aukera ba ote zuten, zergatik indartu zen erdara euskararen kaltetan, zer erabaki politiko eta ekonomiko izan ziren horren atzean...

Feminismoak betaurreko moreak darabiltza. Hau da hizkuntzaren betaurrekoak jantzita historiari begiratzea. Eta ahal dela, bifokalak. Atzera begiratu, orain eta hemen gertatzen ari dena tes-tuinguruan jartzeko.

Hizkuntzarekiko harremanak, jarrerak, usteak... Intimoak diren kontu batzuk, nola jaso orain 200 urte atzera eginda?

Horixe da erronka. Batzuetan oso-oso

zaila da. Hizkuntzen aipamenak askoz ere gutxiago dira. Ez dira aipatzen dokumentuetan zuzenean.

Orain dela 100 urte ohikoagoak ziren, abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren agerpenarekin batera. Badago euskararen aldeko jarrera bat, publikoki bultzatzeko nahia. Karlistaden garaian ere bai, bada kontzientzia bat. Baina ez da erraza. Atzerago joanda, ez dago idatzita ia ezer propio euskararen inguruan. Alde edo kontra. Ez da. Dokumentuetatik pistak ateratzen ditugu.

Zorionez, Zumaiaiko kasua berezia da, artxibo aldetik material asko dagoelako. Oso ondo antolatuta eta zainduta egon da.

Zumaiaiko Udaleko Artxiboa, inguruko beste artxibategi batzuk, hemerrotekak, irudi batzuk...

Dokumentazioan gaztelania nagusi eta euskara, aldiz, ezkutuan ageri da. Izebergaren irudia etortzen zait, Peio Monteanok erabiltzen duena *El Iceberg navarro* liburuan. Agerian den ertzari begira sumatu dezakegu zer dagoen azpian. Gure kasuan, horri begira, pistak dauzkagu ezkutuan dagoena euskaraz



ZER NAHIAGO, MEDIKU ONA ALA EUSKALDUNA?

**Ditxosozko galdera,
baita XIX. mendean ere**



dela esateko. Adibide argi bat, pertsona bat ari da testigantza ematen epaiketa batean eta esaten du ez dakielako erdaraz, baina deklarazio osoa erdaraz jasota dago. Inon ere ez da ageri euskaraz ari denik. Horrelako gauzak normalak ziren. Gure egunerokotasunean ez ditugu jasotzen kontu arruntak, berezitat hartzen ditugunak baizik. Garai hartan ere ohiko kontuak ez ziren kontatzen.

Toponimia eta etxeen izenak ere badira. Horiek guztiak, denak, Zumaiian euskaraz dira. Biraoen kontua ere oso polita da. Epaiaketetako testigantza batean *“sangre vendida”* agertzen da, *“odol-saldua”* esan zuelako da. Edo *“le llamó negra”*, beltza esan zuelako. Orduan ere zailtasunak zituzten itzulpenetan. Epaiaketetako dokumentuen bukaeran askotan agertzen da *“no firmó porque no sabía escribir”*. Idazten ez zekiela, ezta gaztelaniaz egiten ere. Horiek denak pistak dira.

**Halere, epaileak, abokatuak,
udalekoak-eta inguruko jendea**

izango zen. Asko euskaldunak, baina geratu dena erdara hutsean dago. “Erdara gauza serioetarako dela”, ez da atzo goizekoa.

Hala da. Euskara noiz eta zertarako idatzi da? Elizan, mezatan eta dotrina batzuetan, katixima jendeak uler zezan. Hortik aparte ez daukagu bestelako ebidentziarik. Udalaren funtzionamendua, aktak eta, erdara hutsean ziren XX. mendera arte. Eta XX. mendean ere euskaraz soilik batzuetan.

1766 - 1966. Hasiera eta amaiera urteak ez dira kasualitatea.

1766an Gipuzkoan matxinada izan zen, aurreko erregimenaren gain-behera gisa eta 1966an Zumaiian ikastola sortu zen. 200 urte, zifra borobiltze aldera.

Hiru epetan banatu dut. 1766tik 1876ra artekoa. Orduan izan zen Errestaurazioaren hasiera, karlistaden amaiera eta Foruen galera. Lehen 110 urte horietan pentsa zenbat gauza gertatu ziren. Frantsesak, ingelesak, gerra, inbasioa, karlistadak...

Historia errepikatzen da. Batez ere errepikarazteko gogoia dagoenean. Azkuek erreskatatutako pasarte interesgarrien artean bada bat euskaldunoi oso ezaguna egiten zaiguna. Ezagunegia.

1855ean kolera gaitzak gogor jo zuen. 122 lagun hil ziren Zumaiian. Horietako bat herriko zirujaua izan zen. Bera eta medikua ordezkatzeko Eusebio Gurrutxaga alkateak lan-deialdia plazaratu zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Iragarkiko azken esaldian hala zioen: *“advirtiéndole que ambos profesores deberán poseer el idioma vascongado”*. Euskara jakitea lehentasun.

Ondoren, aurkeztutako hautagaien artean bozkatu zuten udaletxean. Zinegotziek hiru aldiz bozkatu eta hiruetan berdinketa. Bina boto Manuel de Pedrazaren alde, eta beste biak Toribio Ibasetarentzat. Ibasetak euskaraz zekien, Pedrazak ez.

Berdinketa apurtzeko herriko beste 11 handizkirekin jorratu zuten gaia. Bilera horretan zinegotzi batek hala esan zuen euskara jakitea lehenetsiz: *“aunque el Señor Pedraza fuese preferido por la Universidad y tenía más práctica en su concepto, el Señor de Ibaseta debía ser preferido por cuanto posee el idioma vascongado”*. Hau da, ustez formakuntza profesional handiagoa izatea ezin da herritarrekin komunikatzeko gaitasunaren gainetik jarri. Handizki batek, ordea, aurka egin zion zinegotziari euskaldunok gaur egun sufritzen dugun lelo ezagun bati helduz: *“Siendo el médico para curar o estudiar enfermedades, más bien debía atenderse a los conocimientos científicos y a la práctica que al idioma y que no podía haber duda en la elección”*. Euskaldunon eskubideak lan-munduan azpiratzeko ohiko jukutria, XIX. mendean.

Azkenean, bozketa eginda, Ibaseta mediku euskalduna hautatu zuten zortzi botorekin. Handik aurrera ere askotan azaldu zen euskararen gaia antzeko hautaketetan. Adibidez, Oikiako auzo-alkateak zegokien zergak ez ordaintzeko mehatxu egin zueneko: *“los moradores de su valle de Oiquina, no contribuirán cosa alguna siempre que sea castellano el médico que les asista”*. Hau da, guk ordaindu eta guri ulertu ez. Nola ba?

Imanol Azkuek dokumentatu duenez, Zumaiako Udalak jendaurreko bestelako lanpostuak atera behar izan zituen, ia beti kontuan izan zuen euskalduna izateko baldintza edo lehentasuna. 1936ko militar eta erlijiosoko faxisten estatu kolpera arte.

Epe horretan euskara nagusi, eta gaztelaniaz zumaia gutxi egiten zuen. Erdara funtzio jakin batzuetarako soilik erabiltzen zuten. Udaleko aktak, epailetak eta horrelakoetan. Zumaia gehienek ez zekiten erdaraz; epaileek, notarioek, alkateek bai. Ikasi nahi zuenak ere ez zuen aukerarik, apaiz sartuta akaso.

Bigarren epea, Foruen galeratik 1936ko altxamendu faxistara bitartekoa. "Estatuaren makinaria gaztelaniari lehentasuna emateko ahalelginean".

Bada ahalegin kontzientea hizkuntza bat nagusitzeko: erdara nagusi zen funtzioez gain beste esparruetara zabaltzeko. Hezkuntzatik batez ere, baita soldadutzaren bitartez ere.

Eta horri erantzunez, aurrerago, Euskal Pizkundea eta abertzaletasunaren sorrera, baina kasu honetan behetik gorako norabidean. Garai hori oso interesgarria da eta oraindik ikertu gabe dago, Zumaian bederen. Adibidez, turismoaren eragina. Nola hasi ziren Madrildik etortzen eta etxeak egiten, eta horrek zenbateraino aldarazi zuen Zumaia bizimodua. Gaur egunera arte jarraitzen duen prozesua.

Eta azkenik faxismoaren menpeko Zumaia. "Euskara eta euskaldunak baztertuta. Gaztelaniaz denek ikasi zuten nahitaez, eta batzuek etxean euskara transmititzeari ere utzi zioten". Azken hau zailago egiten zaigu onartzea, ezta?

Bai, baina hala gertatu zen. Beldurrez batzuk, beste batzuk gaztelania ez jakiteagatik haiek jasandako sufrimendua seme-alabek sufri ez zezaten. Ahalegin argia zegoen euskara azpiratzeko. Batzuekin lortu zuten, baina beste pertsona batzuekin ez.

Zumaian euskarari eutsi zaio, batez ere, komunitatea gotortu delako. Familia eta lagunartean mantendu zuten, dena kontra izanda ere. Beste herri batzuetan ez zen hala gertatu. Xamarrek oso ondo



azaltzen du *Etxera Bidean* liburuan, nola desagerrarazi zuten euskara zenbait herrian. Zumaian euskararekiko kontzientziari eusteko jende multzoa izan da, eta bada. Aitortza egin behar zaio horri.

1966. Azken mugarrria, ikastolaren sorrera.

Nabarmena da beste etapa bati atea ireki zizkiola ikastolak. Bere krisi eta guzti ere egin zuen bideari esker gaude gauden tokian. D eredua zergatik da nagusi eta eredu bakarra Zumaian? Ikastolak hasitako bideari esker. Dударik gabe. Politika da aztertzea frankismoan lehen arrakalak agertzean, 1960ko hamarkadan zirrikitu horiek euskaldunek nola baliatu zituzten hezkuntzan, euskara batuaren sorreran, kantagintzan, literaturan...

Abertzaletasunaren aurretik ere, batzuek bazuten euskararen aldeko kontzientzia, nahiz eta politikoa izan ez.

Kontzientzia praktikoa. 1817an alkateak apaizak euskalduna izan behar zuela eskatu zuen. 1856an Zumaia medikua edo musika bandako zuzendaria kon-

tratatzeko, berdin. Lanpostu guztietan gertatzen zen. Erdaldunak ez zien balio.

XIX. mende bukaeran Zumaian tradizionalistak zeuden agintean, oso espainolak. Ez zegoen abertzaletasunik, baina euskararen aldeko erabakiak hartzen ziren praktikotasunagatik.

"Euskararen komunitateak eutsi dio euskarari Zumaian, batzuetan erakundeek lagunduta".

Azken garaiez ari naiz. Euskal Pizkundearen garaian edo Primo de Riveraren diktaduraren ondoren, erakundeetatik espazio batzuk ireki ziren euskararentzat. Baina erdaraz funtzionatzen zuten erabat, hizkuntza politika bat egitea oso kontu moderno da. Gerra egon ez balitz, akaso, behar hori sortuko zen, baina...

Zergatik dira beharrezkoak mota honetako lanak?

Gauden tokian gaude, bide bat egin dugulako. Ez gaude kasualitatez. Bide hori ulertu gabe nekez ulertuko dugu osotasunean gaur egungo egoera.

Eta gaizki egindakoak etorkizunean ez errepikatzeko. Arlo guztietan. ●

BABESLETTA:

HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLI, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako
sozioetaren munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz
egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren,
talde-lanaren, ariztasunaren eta iraunkortasunaren
hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsekoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry

Epidemien aurkako hirigintza



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Bartzelona, 1860. Hiriko harresi zaharrak bota eta sei urtera, Ildefons Cerdá (1815-1876) ingeniariak zabalgunea eraikitzeke plana prestatu zuen. Iraganean hiri zaharra astindu zuten epidemiak geldiarazteko koarentenak ez ziren nahikoak izan, eta zientziaren garapenari eta estatistikari garrantzi handia ematen hasi zitzairen garaletan, hiri higieniko, osasungarri eta funtzionala lortzea zen helburua. Cerdáren plana eredu eta oinarri izango zen beste hainbat hiritan; esaterako, katalanaren eragina oso nabarmena da Donostiako zabalgunerako Antonio Kortazarrek 1862an abiatu zuen proiektuan, baita Bilbo zabaltzeko 1876an onartutako Atxukarro, Alzola eta Hoffmeyerren planean ere. Hiri askok bota zituzten urte horietan harresi zaharrak eta, gehienek, Bartzelonaren arazo eta behar berdintsuak zituzten.

Cerdák planifikatutako zabalgunea hiri zaharra baino 20 aldiz handiagoa zen, kale zabalak zituen, berdeguneak, leiho askoko etxeak, patioak... Mugikortasun arinagoa bermatzeaz gain, etxebizitzetan argi asko sartzea nahi zuen, eta ondo aireztatzeke aukera izatea. Lurrazpian ere jarri zuen arreta: estolda azpiegitura indartsua sortu zuen eta putzu beltzak edo minda zuloak ezabatu. Ez zen hura erabaki urbanistiko osasungarriak hartzen ziren lehen aldia: XVIII.



EZKERREAN, ILDEFONS CERDÁREN PLANA BARTZELONA ZABALTZEKO (1860). ESKUINEAN, DONOSTIAREN ZABALGUNERAKO PLANO, ANTONIO KORTAZARRENA (1862).

mendean hilerriak hirigunetik kanpo eramateko eta kale nahiz plazatan iturriak jartzeko joera nagusitu zen, eta onurak nabaritu ziren. Baina hura eredu zaharrari adabakiak jartzea zen; Cerdáren proposamenak, aldiz, hiriaren paradigma errotik aldatzen zuen.

Higienez eta osasun publikoaz gain, Cerdáren hirigintza planak horiei estu lotutako beste helburu bat zuen: berdintasuna. Richard Sennett soziologo eta historialari estatubatuarrek *Building and Dwelling: Ethics for the City* (2018) lanean esaten duenez: "Osasun publikoaren arazoak izan ziren hiria birpentsatzera eraman zutenak, gaixotasunek berdin eragiten zielako aberatsei zein pobreei". Cerdá sozialista utopikoen korrontekoa zen eta, estatistika lagun,

langileen bizi baldintzak xehe aztertu zituen, planak haien beharrei erantzun diezaien. Hau da, hiri berriak aberats zein pobreek baldintza berdinak izango zituztela bermatu behar zuen.

Baina aberatsei ez zitzairen berdin, tartean haien interes ekonomikoak zeudelako. Cerdáren planari aldaketa asko egin zizkieten eta oso desitxurata, urardotuta eraiki zen azkenean. Espekulazioa eta dentsifikazioa gailendu zitzaizkien osasunari eta kalitateari. Askok diote azken hilabetetako egoera daukagun hirigintza eta etxebizitza ereduaz hausnartzeko baliatu behar dela. Baina zabal daitezkeen bide berriak motz geratuko dira, duela mende eta erdi bezala, hiri erdua logika ekonomiko hutsetik lantzen jarraitzen bada. ●

ANTONIO KORTAZAR
MUSEU D'HISTORIA DE LA CIUTAT

Noiz hasi ginen "pentsatzen"?

Hegoafrikako Ekialdeko Lurmuturrean hezurrez egindako gezi punta bat aurkitu zuten 60ko hamarkadan, baina oraintsu jakin da tresnaren datazioaren emaitza: piezak 60.000 urte dauzka. Ehizerako arkua eta geziak erabiltzen hastea mugari garrantzitsua da gizakiaren eboluzioan: tresnek hainbat osagai dituzte, bakoitzak funtzio espezifikoak du eta elkarre-

kin erabilita ekintza jakin bat (ehiza) optimizatzea lortzen da.

Teknologia sinbiotiko horrek malgutasun kognitibo handia eskatzen du, kontzeptu anitzak batera pentsatzeko gaitasuna. Orain arte, nagusiki Europan aurkitutako arrastoak aztertuta, eboluzio hori duela 40.000 urte eman zela uste zen, baina Hegoafrikako geziak 20.000 urtetan atzeratu du data, Afrikan behintzat. ●



JUSTIN BRADFIELD/SARAH WURZ

BELTZETIK...



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kolore beltza oso urria da landareetan. Pinu beltza ere (*Pinus radiata*) esaten zaio insignis pinuari edo pinu azkarrari, azken mendeen gure mendiak margotu dituen pinuari, alegia. Beltzez margotu dituenari. Beltza sortzen duen paisaiaren kolorea, eta beltza bera igaro den tokietan utzi duen panorama, dολουaren panorama.

Makal beltza ere (*Populus nigra*) badugu, bere hostoaren ilunagatik, bera landatzeko eragatik eta duen hazkuntzagatik sortzen dituen makaldi itxi, sarri eta tapituetan sortzen duen ilunpeagatik, beltza izena duena. Intxaurren beltza ere (*Juglans nigra*) bada. Izena ez datorikio Altzako Intxaurrendoko kuarteleko istorio beltzagatik, ez. Bere zuraren koloreagatik du izen hori. Intxaurren arrunta espeziean (*Juglans regia*) zenbaitek ale batzuei "intxaurren beltza" esaten diote. Intxaurren arrunt batzuek ere beltza izan ohi dute barruko zura, eta horiek egun eta berealdiko salneurria izaten dute.

Landareetan beltza urria bada, loreetan zer esanik ez! Lorezaintzan beti izan da erabili xamarra den edozein espezieetan lore beltza duen barietatea lortzeko "borroka". Izugarritzko balioa ematen zaio ez dagoen hori eskuratzeari; hibridazioaren hibridazioz sortutako bitxikeriari; zure sorkuntza horri zuk nahi duzun izena jartzeari; zorrotz patentatu ondoren lorpenaren berri emateari; eta ondorengo irabazpideak dakarren etekinari.

Berez kolore beltzeko loreak urdin, ubel, gorri edo horien arteko nahaseta oso ilun batekoak dira. Esan daiteke beltz-beltzik ez dela. Baina negozioia hortxe eta beltz izenekoak beltz saltzen dira, erruz.

Idi-bihotzetan (*Tulipa* sp.) borroka handia dago. "Queen of the night", "Black Parrot", "Nearly", "Ebony Queen" eta



"Black Hero" barietateak, adibidez. Izena ere saltsa polita da, zeinek baino zeinek beltzagoa jarri. Idi-bihotzetan batek soilik dio egia: "Nearly" idi-bihotz beltza, hau da, ia-ia beltza.

Landareetan beltza
urria bada, loreetan
zer esanik ez!
Argazkian, dalia beltza

Lirio edo ostargi-belar arruntarenetik ere (*Iris x germanica*) bada aukera: "Hello darkness", "Raven girl", "Midnight oil", "Black is black", "Bad intentions"... Izen beltzak...

Arrosoetan ere (*Rosa* sp.) beltz-beltzik ez da, baina eskainiko dizkizute.

Baita kala (*Zantedeschia aethiopica*), kosmosa (*Cosmos* sp.), bioleta (*Viola* sp.), petunia (*Petunia x hybrida*), malba gorria (*Alcea rosea*) eta abar ere.

Euskaraz ere badugu gure beltza: beltza-belarra (*Scrophularia nodosa*). Loretxo ia beltzak ematen ditu... Horregatik ote du izen hori?

Ni, badaezpada, aurtengo udaberriaren hasieran beltzez janzten hasi naiz atariko lore baratzea. Bi landare bitxi ekarri ditut: intsusa hosto-estu beltza (*Sambucus nigra* var. *phorphyrophylla* "Eva") eta aspaldian topatu ezinik nengibilen dalia beltza (*Dahlia* "Verrones obsidian" edo "Honka Black"). Azken horrek lehen lorea ireki ordurako, Bizi Baratzearen sareetan erakutsi dut, eta landarezaleengan upielako poza sumatu dut. Urteko egun luzeenetan, argienetan, beltzetik. ●

MILIKA

BARATZETIK DATOZEN IZOZKIAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Gaztetatik laborantzari lotutako ikasketak egin zituen Miren Harignordoquyk, eta lurrarekin harremanean egon da geroa ere: “Euskal Herriko Laborantza Ganbaran aritu nintzen teknikari lanean, eta hortik hasi nintzen laborantzan plantatzeko ideari bueltaka”, dio. Hainbat etxaldetan bere burua frogatu eta zenbait ikastaro egin ondoren, azkenean, 2017an bere proiektua abiatzea erabaki zuen: Anhauzeko lursail batean frutarbolak eta landare usaintsuak landatu eta horietatik ateratakoekin izozkiak egiten hasi da. Horrela sortu da Milika proiektua.

Anhauzeko lursail batean
frutarbolak eta landare
usaintsuak landatu
zituen 2017an Miren
Harignordoquyk eta
horietatik ateratakoekin
izozkiak egiteari ekin
dio udaberri honetan,
esnekirik eta gehigarririk
gabe

BARATZETIK HOZKAILURA

Zuhaitzak eta fruitu txikiak landatu zituen Anhauzeko lursailean Harignordoquyk, eta orain hasi da horietako zenbaitetik fruituak jasotzen. “Gure eskualdean fruitu ekoizle gutxi da, eta nik gainera eraldatu egin nahi nuen, ez fruitu gordina eskaini. Erreximentak egiten dituztenak badira inguru hauetan, eta beste zerbait nahi nuen proposatu”. Han-hemen kuxkuxeatzen



ibili eta gero bururatu zitzaion fruituekin izozkiak egiten hasi zitekeela. “Iaz hasi nintzen lehen fruitu txikiak jasotzen: mastak, mertxikak, pikuak...”. Hozkailuetan sartu eta udaberri honetan ekin dio fruitu horiekin izozkiak prestatu eta saltzeari.

Ekoizpen ekologikoan dihardu Anhauzeko laborariak, osasunarentzako eta ingurumenarentzako errespetuz ekoitzi nahi duelako. Eta bere izozkiek badute ohikoetatik ezberdintasunik: “Esnekirik gabe egiten ditut izozkiak, eta inolako gehigarririk ere ez dut erabiltzen”. Fruituak, ura, eta azukre pixka bat darabil izozkiak egiteko, ez besterik. “Hozkailutik fruitua atera, hezurra eta azalak kendu, xehatu eta fruitu purea ateratzen dut. Horri ura eta azukrea gehitu eta izozkia egiteko tresnara doa”. Ohiko izozkietan egonkortzaile ugari erabiltzen dira testura eta iraunkortasuna lortzeko, horiei guztiei uko egin die.

INGURUKO MUGIMENDUEKIN ELKARLANEAN

Ekoitzi, eraldatu eta saldu, prozesu osoa berak egiten duela azaldu digu. “Izozkien zati bat zuzenean kontsumo taldeen eta AMAPen bidez saltzen dut, eta beste parte bat etxe ekoizle, saltoki edo biodenden bidez”. Inguruko kontsumo taldeekin duen harremanaz gain, Idoki Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarteko kide ere bada, eta fruituzainen taldeetan ere parte hartzen du. “Lurraldean badira elkarte eta mugimendu anitz, ene maneran parte hartzen ari naiz eta proiektua garatzeko haien laguntza ukan dut”. Etxaldean bertan ekoizten aritzeaz gain dinamika horietan parte hartzea garrantzitsua dela uste du. Lehen uda izanen du aurtengoa, eta jendeak bere izozkiak dastatzeko gogobeteta dago. ●



Tira grafikoen bidez tiro egitean, errealitatea ezagutuz gero hobeto egingo duzu”

UNAI ITURRIAGA

2019ko ekainaren 3an publikatu zuen Unai Iturriagak lehenbiziko tira grafikoa *Gara* egunkarian, *Zugazart* sinadurapean, amaren abizenetik (Zugaza-Artaza) hartua. “Eskerrik asko, Tasio!” mezuak hartzen zuen tiraren ia osoa, Javier Etayo, *Tasio*-ri erreferentzia eginez: *Egin* egunkarian 1991tik hura itxi zuten arte, *Euskadi Información*-en gero, eta *Gara*-n 1999az geroztik, egunero hutsik egin gabe, iaz erretiroa hartu zuen arte iritzi saileko tira grafikoak egin zituen. “Zorrotz eta garratz merezi zutenekin. Maitasunez eta samurtasunez behar zutenekin”, zioen *Tasio*-ren lekukoa hartu zuen Iturriagaren estreinako bineta hark. Eta, hilabeteotan *Zugazart*-en ibilerak jarraitu dituen irakurle gisa, esango nuke bere buruari ere aplikatzen diola *Tasio*-ri eskainitako esaldi hori. Iñigo Cabacas, Zaldibar, COVID-19... horien inguruko tira grafikoek erakusten dutenez. Telefonoz egin genion elkarrizketa apiril hasieran. Ezin bestela, etxe-zuloan sartuta egonik.

 JON TORNER ZABALA

Nola izan zen *Gara*-n hastea?

***Tasio*-ren lekukoa hartu zenuen...**

Deitu nindutenean zur eta lur geratu nintzen, erotu zirela uste nuen. Baina bestetik, marrazkilari frustratua beti izan naiz eta... Bizitzaren gauzetarako nahiko kontserbadorea naiz, baina pentsatu nuen edonork ez daukala 45 urterekin bere bizitza laborala berbideratzeko aukerarik. “Tren hau ez da berriro pasako”, pentsatu nuen. Beldur apur bat ematen zidan, *Tasio*-k urte mordoa eman du eta... baina “trena hartzen ez baduzu damutuko zara”, esaten nion neure buruari. Bikotekidearen babesa ere funtsezkoa izan da. Berak animatu ezean ez nintzen inolaz ere hasiko lan honetan, eta, batez ere, ezingo nuke aurrera atera.

Eta, erabakiak zure egunerokoa asko baldintzatu al du?

Erabat. Ez nuen imajinatzen zenbateraino izango zen. Ezinbestekoa da familiak margen pixka bat ematea, oraindik ez baitut lortzen tirak aurreratzea. Iazko ekainaren 3an hasi nintzen, eta ordutik asteen zazpi egun eskaintzen dizkiot, salbuespen gutxi batzuekin.

Asteaz zazpi egun. Eta, egunean denbora asko?

Idea da normalean gehien kostatzen dena. Marrazten ere oraindik nahiko geldoa naiz, baina alde horretatik, denbora gutxi daramadan arren, eman ditut aurrerapausoak.

Egunkarietako albisteak edota sare sozialak lagungarri al dira, tira grafikoetara eramateko moduko gaiak berehalakoan ateratzen ez direnean?

Hor ibiltzen naiz. Bitxia da, batzuetan oso argi daukat eta beste batzuetan ez dakit zenbat saiakera egin behar ditudan. Bertsolaritzarekin alderatzen dut nik. Bertsotan ere egun on ala txarra izan dezakezu, eta bietan egin behar da kantuan. Zure buruari barkatzen ikastetik ere badauka pixka bat. Ez zara beti konforme geratuko, beti ez duzu asmatuko. Hori ere ikasi behar da. Beste kontu bat da egunerokotasunari nondik begiratu. Batzuetan pentsatzen dut: “Betik nabil hemendik...”, eta aldaketaren bat egin nahi duzu, baina tira, ofizioak horrelako gauzak dauzka.

Bertsotan ordea pertsonaia desberdinen larruan jartzen zarete, eta haien ikuspuntutik kantatu. Tira grafikoetan, Unai Iturriaga bera da bere ikuspuntua islatzen duena.

Duda barik. Baina bertsotan ere, egokitutako pertsonaiaren arabera... Batzuetan bai, pentsatzen duzunaren aurkakoa esan behar duzu, baina besteetan aprobetxatzen duzu zurerak ekartzeko. Tiraren kasuan askoz ere libreagoa zara alde horretatik. Baliatzen dituzu beste pertsonaia batzuk zuk nahi dituzunak adierazteko. Zure iritzia dago hor. Batzuetan ez da erraza. Batzue-

tan, erantzuna eman baino, galdetu egi-
ten duzu.

**Cabacas auzia, Zaldibar, COVID-19...
Horrelakoetan, eta tira grafiko
guztiekin oro har, zer bilatzen duzu?
Zein da zure marrazkien funtzioa? Irri
eginaraztea, kontzientziak astintzea,
boterea zirikatzea?**

Egunero egiten diot galdera hori nire
buruari. Argi daukat ez duela beti zertan
umorea izan. Zenbaitzuk horrela uler-
tzen dute, baina nik ez dut hala egiten,
ziurrenik ez naizelako horretarako gai.
Batuetan pentsatzen dut: "Joder Unai,
egunkari osoa joango da azterketa buru-
tsuz beteta, eta zuri beste alderdia egoki-
tzen zaizu". Baina batuetan ez naiz gai,
edo ez dut nahi. Bestetik, tira grafikoak
ziri puntu hori izan behar duela irudi-
tzen zait, orratz fin batekin josia izanik
ere, galdera baten bidez-edo, umorearen
bitartez hobeto, baina ez derrigor.

**COVID-19aren harira, zure tiretan
koronabirusa bera ez da agertzen
-pertsonaia/subjektu moduan-, bai
ordea politikariak. Bizi dugun krisian,
argi duzu ordezkari politikoak behar
direla "egurtu"?**

Ez berez eta besterik gabe, baina egoera
kudeatzen ari direnak beraiek dira. Birusa
ez da inor, hura egurtzea absurdoa da.
Guk ez dugu haren kontra zereginik, po-
litikariak dira, edo ejertzitza, egunero-
kotasun horretan hori guztia kudeatzen
ari direnak. Nik herritzaat daukat nire
burua -bakarren batek ezetz esango dit
baina tira-, bufoitzat, eta parean dago
boterea. Beti dago botere harreman bat.
Badakit ez direla politikariak birusa sor-
tzearen errudunak, baina kudeatzaileak
beraiek dira eta gaizki ari direnean zer-
bait egingo dut.

**Gezurra dirudi Urkullu bezalako
pertsonaia itxuraz "zozo" batek
zenbat joko eman dezakeen. Irakurle
moduan, esango nuke ondo asko
asmatu duzula nola karakterizatu.
Erraza izan al da?**

Ez, ez. Gogoan daukat Patxi Huarte *Zal-
dieroa*-k nola jarraitzen duen haren
argazkia erabiltzen. Nire buruari esan
nion: "Sortuko dut nik bat; lehenbizi-
koan ez du funtzionatuko beharbada,
baina hortik aurrera hori izango da nire
Urkullu". Ez nuen buruhauste handie-
girik ematea nahi, egiten dudanarekin
nahikoa baldin bada, aurrera. Antza,
jendeak identifikatu du, lehenengo al-



UNAI ITURRIAGA, Haur Besoetakoa.
Paristik datorren artista komikiaren
aurkezpenean, 2018an.
GORKA RUBIO / FOKU

dian ez, baina agian hirugarrenean...
Listo, hori da nirea. Gero, ba egia da
gizonak askorako ematen due-
la. Inoiz esan izan didate:
"Utzi bakean gizona".
Material infinitua ema-
ten du ordea!

Horrek kezkatu ere
egiten nau. Nik argi
nuen nire erreferen-
tzia markoak Eus-
kal Herria izan behar
duela. Batez ere, ez Es-
painia -Frantzia ez dut
hainbeste buruan-. Zer
gertatzen da? Kontziente
naiz EAeko politika oso erdigu-
nean dagoela, ni hortxe bizi naiz eta. Gai-

nera, ezin daiteke alderatu Urkullu jauna
Maria Chiviterekin adibidez, ematen
duen jokoagatik. Hutsune ho-
rretaz kontziente naiz, ma-
teriala bilatzen dut, saia-
tzen naiz EAEn gehiegi
ez zentratzen, baina
norberaren ezagutza
ere hor dago. Nik ira-
kurtzen dut egunka-
rietan-eta Nafarroari
edota Ipar Euskal He-
rriari buruz, baina ez
dut Urkullu bezalako-
rik aurkitu. Gainera, tira
grafikoen bidez tiro egitean,
errealitatea ezagutzen baldin ba-
duzu hobeto dakizu nola egin.

“
**Tira grafikoak ziri
puntu hori izan behar
duela iruditzen zait, orratz
fin batekin josia izanik ere,
galdera baten bidez-edo,
umorearen bitartez hobeto
baina ez derrigor”**

Twitterren-eta kristolako material piloa dago.

Saiatzen naiz hortik ihes egiten pixka bat. Badaude bi mundu, erreala eta birtuala, Twitter-eta... baina mundua hortik kanpo dago. Kontuz zein erreferentzia erabiltzen dituzun, ze agian horkoak erabilia hor txalo asko jasoko duzu, baina gehiengo hortik kanpo dago...

Zein marrazkilari da zuretzat erreferentzia?

Olariaga da nire bizitza. Txikia nintzenetik ezagutzen dut, berarekin hazi naiz. Bere estetika maite dut eta pentsatzen dut eragin didala. Gero, *Zaldieroa*, jakina. Manel Fontdevila, Eneko Las Heras... Tira mutuak egiten Eneko oso ona iruditzen zait. Behin *Tasio*-k esan zidan: "Oso ondo e, baina hitz askotxo". Badakit. Ni hortik nator, badakit nire herrena non dagoen. Hori ere ikasi nahi dut. Azken batean, honakoa eguneroko zerbait da eta nik ahal dudana egiten dut, argi esanda.

"Hitz askotxo". Euskaraz publikatzea abagune al da, oztopo edo beste edozein hizkuntza bezala?

Nire hizkuntza da. Badakit horrek zer esan nahi duen, nire komiki-tirak publikatzen dituen egunkariari dagokionez. Kontziente naiz. Egia da askoz sintetikoagoa izan beharko nukeela behar bada, baina nire hizkuntza da, nirekin doa, tiro batzuk hortik sortzen dira... Alde horretatik, ez nau asko kezkatzen, natural ateratzen zait. Baliabide gehiago izan nahiko nuke, baina hori nik landu beharreko zerbait da.


Libre sentitzen zara egunkari batean nahi duzuna publikatzeko? Mugarik jartzen diozu zure buruari? Ez dakit autozentsuraz hitz egin daitekeen...

Autozentsura hor egongo da ziurrenik, inkontzientean. Gainera, koan, ba agian bai, gure historia hurbila, urte potente horiek... tentu pixka batekin aritu behar da. Eta norberak inplizituki daramana ere bada. Gara-n hasieratik eman didate nahi nuen egiteko askatasuna. Proposamen bakarra jaso dut: Antonio Alvarez Solis zendu berriari marrazki bat eskaintzea, eta ondo iruditu zitzaidan. Beste kontu bat da, uste dut Cesar Orozi

Egia da Urkulluk askorako ematen duela. Inoiz esan izan didate: 'Utzi bakean gizona'. Material infinitua ematen du ordea!"

Zure tira grafikoak editorial kontsideratzen al dituzu?

Nire burua ez dut inondik inora editorial moduan ikusten, gehiago da zutabe



[*Diario de Navarra*] entzun niola, gauza bat dela libre sentitzea -ni halaxe sentitzen naiz-, baina jakin badakizula non argitaratzen duzun.

Ez da askatasun kontua. Absurdoa litzateke egunkariaren ildo editorialaren aurkako tirak egitea. Nire kasuan, batere arazorik ez dut izan zentzu horretan.

bat. Gaiak aurretik pasako babilizkidate beste gauza bat izango litzateke, baina ez, ez.

Komikietan, maiz erabiltzen dituzu kultura, gizartea edo kirolarekin lotutako erreferentziak, horien parodiak egiten dituzu... Tira grafikoetan ere bai?

Batzuetan bai. Nire ganbara horrekin betea dago. Gero, arriskua dago erreferentzia konpartituak diren ala ez. Bete-beteen asmatzean nabari da, funtzionatzen du. Ikusi duenarentzat plus bat da. Gustatzen zait, irakurle bezala ere bai, autoreari buruzko informazioa jasotzen ari zarelako. ●

ASTEKARIAREN BANAKETA



Bizikleta da banaketa-sistema azkarrena

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

ARGIA astekaria banatzeko modua aldatu da Gasteizen. Correos enpresak egin du asteroko banaketa lana orain arte eta hemendik aurrera harremana moztu du ARGIA Arabako hiriburuan. Eraman kooperatibak hartu du orain lan horren ardura eta dagoeneko irakurtzen ari zaren aldizkaria banatzaile berriek eramandakoa izango duzu.

Arazo handiak izan dituzte Correosekin denbora luzez. Ez bakarrik Gasteizen, baina han ere bai. Etxe askotara berandu iristen da, gutxi batzuk dira asteazkenean bertan jasotzen dutenak; beste askok asteburuan jasotzen dute, eta badira aste batean batera ez eta hurrengoan bi batera heltzen zaizkienak. Ez da erraza, ordea, asteroko aldizkariaren partiketa-lanak egingo dituen norbait bilatzea. Horregatik da zaila arazoa konpontzea. Gasteizen, baina, banaketa-lanak egingo dituen kooperatiba berri bat sortu dute. Nor eta etxe honetako Paul Iano kolaboratzailea tartean. Badu esperientzia bizikleta gaineko banaketan. Oroitzen ARGIA publikatu zuen Glovo banaketa enpresan infiltratuta lanean aritutako gaztearen testigantza? Iano bera da kontakizuneko laguna. Telepizzan ere aritu zen gero.

Gustuko du lana, baina enplegu duina aldarrikatzen du. Gasteizen *Berria* egun-

karia banatzeko aukera suertatu zitzaion eta bizikleta gainean egiten du. horretan ari zela hasi zen buruari eragiten eta pentsatu zuen aukera bat izan zitekeela ARGIA eskaintzea hiriburuko harpidedunen etxeetara berak eramango zuela astekaria. Behingoz, astekariak behar duen egunean heltzeko.

Proposamena erakargarria egin zaio ARGIAri. Aldizkaria etxeetara puntuan ailegatzea izan da beti bere ametsa eta honekin lortuko da. Etxeko eta konfiantzazko lagunari bere proiektuan laguntzearen plusa du gainera honek. Ez hori bakarrik, ARGIAren asteroko banaketa egiteko konpromisoarekin eta hori *Berria* egunkariaren partiketari gehituz kooperatiba bat sortu du Paul Iano beste kide batekin, eta beraz, ARGIA lagundu du enplegu duinak sortzen. Eta behin gorpil-gainean, Gasteizko jatetxe batekin ere iritsi dira tratura. Jatetxe honek ez du Glovo bezalako enprekin lan egin nahi, zaindu nahi du bizitza duina eta eramateko jana banatzen ere hasi dira.

Oraingoz Gasteizkoak nola funtzionatzen duen ikusi behar dute, baina dagoeneko ari dira Bilbo eta "Bilbo Handia" deitzen zaion eremuari erreparatzen; han ere antzeko aukerak suerta baitaitezke. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Prentsa independentearen aldekoa naizelako".

Santurtziko Marcos

"Pandemia honetan albisteak egoki kudeatu dituzuelako, eta Zaldibarko desastrearena ere bai".

Eibarko Arantza

"Kalitatezko kazetaritza egiten duelako, rigore handikoa eta kazetaritza konbentzionalak argitaratzen ez duen informazioa zabaltzen duelako".

Donostiako Olatz

"Gustora irakurtzen dudalako".

Aramako Asier

"Euskara hutsean idatzia baita eta euskararen presentzia media guztietan garrantzitsua iduritzen baitzait. Argia -n agertu artikulua aberatsak dira eta jorratu gaiak interesgarriak zaizkit".

Sarako Marie



LIBURUA

Duin harro solemne



DANI BLANCO

NIK ERE GERMINAL! EGIN GURA NUEN ALDARRI KOLDO IZAGIRRE

SUSA, 1998

ARITZ GALARRAGA

Koldo Izagirreraren literatura lotu izan da portuarekin (+1, haren bibliografia begiratzea besterik ez dago), politikarekin (0, literatura guztia ez al da politikoa, are politikotik ezer ez duela ematen duena ere?), zailtasunarekin (-1, errazkerian ez ote den erortzen gaur egungo literaturaren zati handi bat). Beste lotura posible bat litzateke pertsonaia, gogoangarriak sortu baititu ez gutxi: Metxa esaten dioten agirretarragandik, Lorea Gernika andrazkoaganaino.


Germinal! honetara Michele Angiolillo ekarri zigun, 1897an Arrasaten Espainiako lehen ministroa hil zuen anarkista italiarra ("Hil da Canovas, fuera Canovas, pikaro gaizki heziya"). Ez bakarrik, egileak asmatutako narratzaile garaikidea go bat ere bildu baitzen orriotara, zeina

nahasten den maiz anarkista italiarraren ahotsarekin ("Zatoz nire ondora, Lilio, egizu berba nire ordeztu"). Ez bakarrik, narratzaileak asmatutako Cienfuegos libertario euskalduna ere hemendik ibiliko baita, eta Txabi Etxebarrieta, Olasoneko jauna, katalanak, Bartzelonan, Liverpoolgo kaletan, Bergaran, noski, Bergaran.

Hasier Etxeberriak pertsonaiez galdetu zion bost magnifikoen lan hartan: "Korrontearen kontrakoak, nolabait". Kausa galduen zale deskribatuko lituzke Jean Claude, gure historia hurbila markatu duten kausen: "Zer nahi duzu, bada? Nik 15 urte nituen 1968an. Txabi Etxebarrieta hilik, Sarasketari heriotza zigorra, bi urte geroago Burgosko epaiketa", erantzungo du Izagirrek. Liburuak

bete-bete egiten baitio erreferentzia gure historiaren nolabaiteko jarraikortasun kontraesankorrari, alegia, euskal gatazka deitu izan dena ez zela 58an, nahi bada 68an, ez zutela "gazte ero" batzuek abiarazi, baizik eta segida gisa uler daitekeela, auskalo Lehenengo Karlismalditik. Eta anarkismoa sartzen du liburuak lerro horretan: "Halan begitantzen dut orain nire epaiketa hura, zure ekin-tza ere neure gain hartu izan banu moduan", esango dio narratzaileak Liliori.

Angiolillo hiltzen da garrotean, baina duin harro solemne. Halakoxea da eleberri hau ere -Izagirrek ohiko dituen marro, jolas, parrimurriak ahaztu gabe-, "kondena txiki bat mereziko duen liburu hau". Kondena hori izan dadila urte luzetako irakurketa. ●



MUSIKA

Show must go on

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Zalantzarik gabe, COVID-19aren pandemiak gure bizitzak nahastu ditu maila guztietan. Egia da, halaber, apur bat friboloa dela gaitzak jo ez gaituenak kexatzea hain aipatua dugun “normaltasun berriak” gure bizimoduari ekarriko dizkion nahasmenduez. Hildako kopuru handiaren alboan, ondorioak dituzten gaixoen eta minez betetako familien ondoan, gure bizitza kulturalak epe labur edo ertainean izango dituen galerei buruz hitz egiteak gorritu egiten nau, nolabait.

Baina egia da, baita ere, bizitzak aurrrera jarraitzen duela, eta kulturarik gabeko bizitza, eta batez ere musikarik gabekoa, bizitza gutxiago dela, edo kalitate txarragoko bizitza dela.

Horregatik guztiagatik, musikaren ikuspegitik etorkizun itxaropentsua azaltzen digutelako, txalogarriak dira hainbat erakunde izaten ari diren ekimenak. Gure inguruan egiten ari diren ekimenak nabarmendu behar ditut, noski.

Maiatzaren 30ean hasi eta uztailaren 18ra arte, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu ziklo txiki bat eskainiko du ETB2tik eta, ondoren, Internet bidez. Lehenengo emisioak sentimendu nahasketa eragin zigun. Alde batetik, ezin dut ukatu halako atseka-be batek hartu ninduela publikorik gabeko aretoa ikustean eta musikariak behar bezalako distantziak mantenduz. Pandemiak dena inbadituko balu bezala da. Baina egia da, baita ere, musikalki emankizuna primeran hartu genuela. Berpizkunde bat izan zen, lehorte



EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK UTZIA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ETB2n, maiatzaren 30ean, kontzertua emititzeko entseatzen.

hilabete hauen ondoren. Azpimarratu behar da, bestalde, Europako orkestra gutxi ari direla lanean. Adibidez, Amsterdango Concertgebouw Orkestrak ekainaren 3an eta 5ean bi kontzertu *streaming* bidez emateko asmoa zuen, Gustavo Gimenez zuzendaritzapean. Baina kasu gutxi dira.

Horrez gain, operaz ere gozatu dezakegu, OLBEren unerik onenak ikus ditzakegulako, elkarte horrek bere webgunean egiten dituen emisioen bidez. *OLBE etxean* izeneko ekimen honek operako une antologikoak eta dibul-

gazioko hitzaldiak helarazi nahi dizkie operazaleei.

Harrera oso ona izan duen ekimena da, eta hilabete hauetan programaturako operen ezeztapena arintzeaz gain, ziur zale gehiago sortzen lagundu duela.

Pixkanaka erritmo musikala berreskuratu dugu, baina pazientzia izan behar dugu. Udara begira, Donostiako Musika Hamabostaldiak kalitatea formatu txikian eta bertako artistekin eskainiko digu. Programaren iragarpenaren zain geratzen gara. Txikia izan arren, munda bat irudituko zaigu. ●



Gorputzaren habitata

 MARTA SENDIU  ARTGIA

Ekainarekin batera Artgiako ateak ireki dira. Gasteizko Judimendi auzoan dago sorgune eta erakusketa areto hau, eta Uxue Bereziartua hernaniarraren *41 Habitat* esposizioa estreinatu berri dute. Ilustratzaileak 41 espazio edo mikroklimen inguruan hitz egiten digu, eta horretarako, emakumearen gorputza erdigunean jartzen du.

Artgia sorgune eta aretoak COVID-19a zela-eta 75 egun igaro ditu itxita, baina pasa den maiatzaren 31n indarberrituta zabaldu zituen ateak. Eskaintza artistiko indibidual eta kolektiboez goatzeko aukera ematen duen espazio hau, sorkuntza artistikoa eta kultur kudeaketan oinarrituta dago. Erakusketarako toki bat baino gehiago da Artgia, elkartzeko, partekatzeko eta ikasteko arte galeria da, eta maiatzaren 31tik ekainaren 15era

arte *Berexi*-ren artelanak zainduko ditu.

Uxue Bereziartuaren izen artistikoa da *Berexi*, eta bera izan da, hain zuzen, 2019ko EmART (emakume sortzaile gazteentzako deialdia) bekaren irabazleetakoa bat. Gipuzkoarrak urteak daramatza ilustrazioa, diseinua, serigrafia eta tatuajeak egiten, eta kolore paleta propioekin jolasteko ohitura dauka. Berde argiak, arrosak, laranja, horiak eta marroiak dira gehien erabiltzen dituen koloreak, nahiz eta noizbehinka ukitu ezberdinak sartzen dituen haren lanetan.


Aurkeztu berri duen erakusketan, 39 emakume ezberdin irudikatu ditu hainbat koadrotan, gizartean nagusitzen diren kanonetatik urrunduz. Aluak, bularrak, ileak, zakilak eta gorputz biluziak gailentzen dira irudietan. Gizentasuna,

amatasuna, depilazioa, haurdunaldia, feminitatea eta sexualitatearen inguruko hausnarketak datozkizu burura artelanak ikusi bitartean.

Ilustrazio bakoitzak sentimendu bat adierazi nahi digu, egoera ezberdin bat, bizitzako errealitate bat, hau da, askotariko sententzioen mundu bat. Emakumeok bizi ditugun barne-gatazka ugariak plazaratzen dira, eta egileak dioen moduan, barne xomorroi begiratzeko ekintza da, zenbat xomorro biziko dira emakume honen barruan, eta zenbat joango ziren jada?

Imajinarioa lantzeko erakusketa honetan gorputz bakoitzaren atzean egon daitekeen istorioa aukeratzeko eta asmatzeko parada ematen digu egileak. Habitat bakoitzean gertatu dena eta gertatuko dena irudiztatze askatasuna. ●

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:



1. Hormako irekigune. Ordainketa. 2. Metal noble eta preziatu. Oinaren azpialdeak. 3. Hizkuntza bat banatzen den era nagusietako bakoitza. 4. Gero, gerora. 5. Osasuntsu. Senide izatea. 6. Zuntz. Kiribatiko herritar. 7. Muskerraren itxurako animalia. **Argazkiko ibaia.** 8. Sei zati berdinetako bat. Moja edo serora bihurtu.

GOITIK BEHERA:

1. *Lur*, mundu (neologismoa). Hasi aditzaren infinitiboa. **2.** *Gaixo*. Euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideen aldeko gizarte mugimendua. **3.** *Aditzera eman*. **4.** *Antzinako Greziako herritar*. **5.** *Zoro*, ergel. Bigarren letraren izena. **6.** *Zerezko atzizkia*. Norekin atzizkia. **7.** *Elementu kimiko*. **8.** *Alokairu*. **9.** *Galioaren ikurra*. Agataren barietate preziatu. **10.** *Ukatu aditzaren infinitiboa*. Sakan, haran. **11.** *Partisean*, botatzen den pieza kubiko. **12.** *Etorri aditzaren infinitiboa*. **13.** *Salmenta ona*. **14.** *Bat-batean qertatzen den zerbaiten onomatopeia*. **15.** *Erregelata*, norma.

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

laso, eraiki

Ur gainean higitu

Guri

Gaixotasun kutsakor

Barazki mota

Tontor, punta

Enea

Keinada

Ugaztun sarraskijalea

Delako pertsona hura

Bezainbat

Ordea


Gela baten estalki

EREGI


SABAI

Sudoku

ERRAZA




ZAILA

**EBAZPENAK**


MAIATZEAN KUKU ETA
SAN PEDROTAN MUTU.

ATSOTZITZA



EREGI
IGERI
GEURI
GRIFE
PIPER
ERPIN
NIREA
KEINA
HIENA
HAINA
ADINA
BAINA
SABAI

ANAGRAMAK



ESKER-ESKUNI: 1. LEIHO, PAGU, 2. URRE, ZOLAK, 3. DIALEKTA, 4. GEROGA, 5. SANO, SEIDENITZA, 6. HARI, KIRIBATARI, 7. ARABIO, ZADORRA, 8. SEIREN, SERORATU, **GOITIK** **BEHAR:** 1. LUDI, 2. BAI, 3. SARE, 4. PAGARRI, 4. HELENAR, 5. ERO, 6. BE, 7. POTASIO, 8. ALOGER, 9. GA, ONIZE, 10. UKA, IBAR, 11. DADO, 12. ETOR, 13. TIRA, 14. ZART, 15. ARAU.

Arantxa Tirado Sánchez

POLITOLOGOA



INTERNAZIONALISMO PROLETARIOAREN DEFENDATZAILE

“El Carmel auzoan jaio eta hazi nintzen, langileen eta etorkinen Bartzelonako auzoan. Nire bizitzaren herena Latinoamerikan egin dut, batez ere Mexikon. Hara joan nintzen ikastera, baina uste baino gehiago geratu nintzen. Bizi esperientziatik internazionalismo proletarioaren defendatzaile irmoa naiz, ez diskurtso gisa, baizik eta bizi-praxi gisa”.

“Venezuelan emakumeek dute auzoetan lidergoa eta gehiengoa”

Arantxa Tirado Sánchez (Bartzelona, 1978) politologoa da, Nazioarteko Harremanetan eta Latinoamerikako Ikasketetan doktorea. Martxoan zen Bilbora etortzekoa, *Venezuela, más allá de la mentiras y mitos* [Venezuela, gezur eta mitoetatik harago] liburua aurkeztera; koronabirusa tarteko, ezinezkoa izan zen. Eskolak pantaila bidez ematen dabil Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Ez deritzo polita munduarekin konektatzen duenean ikusten duenari, eta arduratuta dago guztion ongizatearen edo ardura kolektiboaren izenean egiten ari direnarekin.

✂ MARIJO DEOGRACIAS HORRILLO 📷 JORDI BORRÀS

Osasun krisiarekin espainiar eskuinak ere ahaztu du Venezuela. Hala ere, kongresuan gaia atera duenik ere egon da: diktadura castro-komunista-bolibartar batean bizi garela esan dute. Ikaragarria. Madrilgo Salamanca auzoko manifestazioekin Venezuelako gaiaren *revival* bat aurreikusten dut. Paralelismo handia dago elite bien protesten artean. Venezuela kasu paradigmaticoa da Latinoamerikako eta Karibeko iraultza prozesu aurreratuena izateagatik, Kubarekin batera. Balio du erakusteko botere politikoa kentzen zaienean nola aritzen diren elite batzuk.

Komunikabideetan ateratzen ez den Venezuelak eraman zintuen liburua idaztera?

Bai, eta umiltasunetik ekarpen txiki bat egiteko nahiak. Justizia ekintza, borrokan eta lezio iraultzaileak ematen ari diren herritarrengatik. Deabrua bailiran, irainduak ari dira izaten erasoen abangoardia den Espainiaren partetik. Benetan gertatzen ari denarekin zerikusirik ez duen errealtatea kontatzen ari zaizkigu.

Mertzenarioen kontuarekin, adibidez.

Telenobeleskoa da, kulebroiekiko Venezuelako tradizioa kontuan hartuta! Surrealista badirudi ere, plaza batean bere burua presidente izendatu eta 30 minutura, munduko potentzia handieneko presidenteak Twitter bidez aitortu zuen Guaido; ustez gobernu paraleloa zuena, herrialdeko aktiboak lapurtzen ari zena... Hori guztia normalizatzen ari gara.

Elkarrizketa batean zenioen iraultza bolibartarra nagusiki femeninoa eta feminista dela. Gizonak eta militarrek baino ez ditugu ikusten, ordea.

Hango abangoardia politikoa batez ere femeninoa da. Emakumeek dute auzoetan lidergoa eta gehiengoa, kontseilu komunaletan. Badu ezau-garri soziologiko eta kulturalekin zerikusia: ama bakar asko dago eta ekintzaile ari dira gogor. Venezuelan lehenakariordea emakumea da, Delcy Rodríguez. Baina bai, prozesu iraultzaileetan ere zaila da emakumeak bistaratzea. Halere, European



"EPE LUZERA BIZI-BALDINTZA HOBEAK IZATEKO BESTELAKO PARAMETRO ETIKOETAN OINARRITUTAKO HARREMAN SOZIALAK BEHAR DITUGU".

eta Venezuelan femeninoa eta feminista ez da berdin ulertzen. Abortua ez da legezkoa eta alderdi estetikoak are pisu handiagoa du, esklabutza da. Badira edertzeko ebakuntzak egindako emakume iraultzaileak, baina ez du inolako gatazkarik eragiten.

Zer geratzen da Chavezen iraultzatik?

Dena, prozesu bera da; jarraikortasuna dago. Oposizioak eta AEBek aukeratzat ikusi zuten Chavezen heriotza, baina ez dute lortu haren aldeko indarrak banatzea. Gerra ekonomikoa areagotu da eta Caracasen sumatu nuen auto eta jarduera ekonomikoa gutxiago, baina jende gutxiago ere. Hurrengo bidaian, aldiz, hobekuntzak ikusi nituen. Egiturazko arazoek hor diraute, baina proiektuari dagokionez jarraikortasuna dago. Herriaren babesik gabe ez luke hainbeste iraungo.

Nola ari dira bizitzen COVID-19aren krisia?

Etxealdian daudela, baina ez dela beharrezkoa esaten didate. Lehenetariokoak izan ziren ezartzen. Txinaren eta Kuba-

ren laguntza dute eta sintomen jarraipena etxetik etxe egin ahal izan dute, oinarritik oso antolatutako sistema dutelako. Osasun oso pribatizatua duten arren, sintomaren bat izan duen orori egin zaio testa.

Osasun krisiaz baino gehiago entzuten da krisi ekonomikoaz. Nola aterako gara?

Betikoa salbatzen saiatuko dira, kapitala. Langileentzat oso zaila izaten ari da bizi duten egoera salatzea, kalera ezin garelako atera. Hala ere, pentsatu nahi dut langile klasearen kontzientzia eragingo duela; gutxienez, ohartzeko kapitalak nola tratatzen gaituen. Koronabirusak kapitalismoaren kontraesanak ageriago utzi ditu.

Agerian geratu da zerbitzu publikoen garrantzia.

Bizipenak eta transformazio soziale-rako gaitasunak elkar lotzeko ordua da. Oinarritzak da zerbitzu publikoen defentsa, baina gainerakook etxean egoteko lanean jardun behar izan dutenenena ere: nekazari, garbitzaile, anbulantzia-gidari, garraiolari... Espero

dut publikoari eta langile klaseari baliola emateko baliagarri izatea. Epe luze-ra bizi-baldintza hobeak izateko bestelako parametro etikoetan oinarritutako harreman sozialak behar ditugu.

Ezarritako kontrol neurriekin, konplikatu transformazioa.


Beldurrarekin jokutzen dute. Logikoa da arrisku egoera batean babestu nahi izatea. Zentzu horretan konfinamenduari ondo deritzot, baina noren esku dago ongizate kolektiboaren izenean darabilten kontrola? Askatasun indibidualak ongizate kolektiboaren mende egon behar dira, baina nork erabakitzen du zein den ongizate kolektiboa? Kolektiboan pentsatzen dugunoi ere kontraesanak eragiten dizkigu.

Etxealdiko zerk harritu zaitu?

Onerako, hainbeste eskuzabaltasun adierazpenek. Erizain laguntzaileak gaixoen senideekin bideo-deiak egiten ikustea ikaragarria da. Ez da euren lana eta, hala ere, egin egin dute. Txarrerako, guztiz suminduta kalera protestan atera diren Madrilgo Salamanca auzoko eta AEBetako horiek. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS



Iñigo Urkulluren ustez Jaurilaritzako funtzionarioek Telepizzako banatzaileek bezala kobratu behar lukete, haiekin elkartasunez

Telepizzako banatzaileek berriz, EAEko lehendakariaren arabera, eguneko otordu bakarrarekin bizitzera ohitu beharko lukete, Afrikako hurrekin elkartasunez. ●

Hondartza dinamikoaren kontzeptua asmatu duen teknikariak heriotza mehatxuak jaso ditu topless egiten duten amonen komando baten partetik

Beldurtuta dagoen arren, beste asmakizun batzuk ere laster aurkeztuko ditu: igerileku lehorrak eta Donostiako pintxo merkeak. ●



Ertzaintzako ERNE sindikatuak adierazi du beraiek hainbeste istilu sortu gabe hilko zutela George Floyd

"Zuek ez dakizue, utzi guri", esan die Ugartekok Minneapoliseko Polizieiei eta manifestariak autoarekin harrapatzen hasi da. ●

OASIKO
Kronikak

▶

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin

AZOKA 2020



EROSI INTERNETEKO ARGIAREN AZOKAN

azoka.argia.eus



943 37 15 45 azoka@argia.eus

azoka@argia.eus

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus